

urtekaria



AZKEN ETXEBIZITZAK



1ºA : 156.000 € + BEZ
1ºB: 159.000 € + BEZ

AMEZKETA - San Bartolome, 35

2 eta 3 gelako etxebizitza, garaje itxia, trastelekua.



2 gela: 172.000 €tik
3 gela: 200.000 €tik

ANOETA - Itur kalea,1



235.000 € + BEZ aurea

VILLABONA - Maiatzaren lehen plaza



275.000 € + BEZ aurea

ALEGIA - Beistin auzoa



155.000 € + BEZ

IRURA - Laskibar auzoa,15

VPO txebizitzak



155.288,86 € + BEZ
aurea

ORDIZIA - Filipinak kalea 34-36

Kale Berria, 46 behea. 20150 Villabona

Tf: 943 690 297 - 607 445 484

www.aburuza.com - aburuza@aburuza.com

Handia, ez txikia

Film batean bezala, pelikulako lehen planoaren aukeraketan murgilduta zegoen ATARIA duela aste batzuk. Eskuardean duen 2017ko urtekaria irekiko zuen albistearen hautaketan, hain zuzen ere. *Handia*-k behar zuen. Urtea borobildu duen albistea, eskualdea pantaila handira eraman duena, Altzo herria berriro ere nazioartean ezagun egin duena, ez bairik gabe Handia efektuak lortu du. ATARIA-k bere fokuak albistean jarri eta merezi zuen trataera eman dio aurren ere, 2015ean, gidoiaren idazketa prozesua hasi zenetik egin bezala.

Fotogramaz fotograma urtea aletu beharra ekartzen du urtekariaren prestaketak. Film luze baten trailerra prestatzek bezalaxe. Traile-rran ezin pelikulako plano, sekuentzia, pertso-

naia guztiak sartu. Eta lan hori hartu behar izan du ATARIA-k orain, *flashback*-ean sartu eta 2017 urteak ekarritako esanguratsuen berritua paperera ekartzen.

Film honen sekuentzia bakoitzak gai bat hartu du, urtea laburbildu asmoz: euskara, Bertso Txapelketa Nagusia, kultura, feminismoa, Giltzarriaren herri galdeketa, lan gatazkak, Aralar, kirola... Ikus-entzule bakoitzarentzako tamainako albistea.

Eseri besaulkian eta gogoratu 2017ak eman duena, gure pantaila handian, ATARIA-renean.

Txikia ez, handia izaten jarraitzeko bokazioarekin. Datorren astean ekingo diogu 2018ko gidoiaren idazketa prozesuari.

ZURIESKER, ATARIKIDE

03

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalet **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:




URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai luque

GERO ETA HANDIAGO BIHURTZEN DOA

Tolosaldean aspaldidanik da ezaguna Altzoko Handia eta bisita asko jaso ditu bere jaioterriak. Aurten estreinatu den 'Handia' filmak ikusmina areagotuko du, eta horri begira zein bere herritarra gehiago ezagutzeko hainbat egitasmo burutzen ari dira Altzon.

Imanol Garcia Landa

Miguel Joakin Eleizegi (1818-1861) altzotarra eta bere historia ezagunak ziren aurretik ere, baina 2017. urtea mugarrizko izango da zabaltze horretan. Altzoko Handiaren edo erraldoiaren herrira eta jaiotetxera makina bat bisita egin izan dira, XIX. mendean izan zen Europako eta ziurrenik munduko pertsona garaienaren gorabeherak ezagutzeko. Orain Eleizegiren fama zabalduko da eta bisita horiek ere areagotuko direla espero da.

Horretan zerikusi nabarmenena *Handia* filmak du, azken urteotako euskarazko filmik ikusienak. Aurreko urteetan beste kultur ekoizpen batzuek ere eman diote hauspoa Altzoko Handiari. Batetik, Altzon bizi den David Azurzak konposatutako haurrentzako opera, eta ondoren, disko horretan oinarrituta egindako txotxongilo emanaldia. Azken hau Donostia 2016



egitasmoaren babespean sortua, eta nazioarte mailan bere ibilbidea egin duena. Horri guztiari begira Altzoko Udaletik hainbat pauso eman dira, bisitariak artatu eta Altzoko Handiaren bizitza ezagutarazteko.

Oso gustura daude *Handia* filmaren

egileak ikusita zer-nolako bidea egiten ari den pelikula. Bi milioiko aurrekontuarekin, orain arteko euskarazko pelikula garestiena da. Eta ikusiena ere bai. Azken datuen arabera, 91.000 ikusle ingurura iritsi da, eta oraindik igoko da kopuru hori. Aitor Arregi zuzendarietako batek azaldu duenez, «*Aupa Etxebeste!*» filma 2005ean estreinatu zen eta 72.000 ikusle inguru izan zituen. Beraz, langa hori pasatzea esanguratsua da, eta uste dut ona dela euskal zinemarentzat. Eta espero dugu aurrera begira ere *Handia*-ren ikusle kopurua gainditzea beste film batek».

Hain justu, ikusleen artean egiten duen ibilbidea da gehien bete ohi dituenak egileak. Publikoak pelikulari buruz duen iritzia inguruan «oso sentazio ona» dutela esan du Arregik: «Guregana etorri direnak pelikulari buruz hitz egitera iritzi positiboarekin izan dira. Sentitzen dugu pelikula jendearena iritsi dela, eta gustura gaude horregatik».

Sari berezia Zinemaldian

Handia aretoetan egiten ari den bidea esanguratsua da, eta estreinaldia ere horrelakoa izan zuen. Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean parte hartu zuen eta orokorrean kritikaren iritzi ona jasotzeaz gain, bi sari poltsikoratu zituen. Batetik, Epaimahaiaren Sari Berezia. Saria jasotzerakoan, Jon Garaño zuzendariak gogora ekarri zuen Zinemaldian «zinema ikusten bertan

tolosaldeko
ataria

ataria
irratia

ataria
internet

ataria
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Joseba Usabiaga aktorea, Altzotik 'Handia' pelikula ikustera Zinemaldira joandako herritarrekin. I.G.L.



'Handia' pelikularen zuzendariak eta aktore nagusiak Donostiako Zinemaldian. I.G.L.

ikasi» zutela. Zinemaldian pausoz pauso joan dira Jon Garaño eta Aitor Arregi eta *Handia*-rekin saria irabazi aurretik pausorik handiena duela hiru urte *Loreak* filmarekin eman zutela aitortu zuten: «Sail ofizialean lehiatzea guretzat amets bat izan zen». Oraingo-

an saria jasotzeak «munduko txapel-dun» sentiarazi zien, «guretzat dena da». Aitor Arregik bere partetik «etxe-koak, lagunak eta aktoreak» izan zituen gogoan: «Sari hau gurea bezain eurena da». Aktoreen lana azpimarratu nahi izan zuen Arregik sari banake-

ta ekitaldian: «Haragia utzi dute aktoreek». Bereziki Eneko Sagardoren eta Joseba Usabiaga tolosarraren lana izan zituen gogoan: «Beraiek haragitu dute *Handia*». Euskal zinemaren Irizar saria ere jaso zuten Zinemaldian.

Beste hainbat jaialditan ere izan da filma eta horietako batean, Italiako Milan eta Como hirietan egindako Noir In Festival jaialdiaren XXVII. Edizioan, film onenaren saria jaso zuen. Londresko, Kalkutako eta Habanako jaialdietan ere erakutsi dute filma.

Hori gutxi balitz, oraindik sari gehiago iritsi daitezke. Izan ere, Goya sarietarako 13 izendapen jaso ditu filmak, eta Forque sarietarako ere hautagaia da. Goya sarietarako, besteak beste, film, zuzendari, aktore berri, jatorrizko gidoi eta jatorrizko musika onenaren sarietarako hautagaia da. Otsailaren 3an jakingo da sarien kopurua noraino iristen den.

Bi anaiaren arteko istorioa

Filmak Altzoko Handiaren bizitza azaltzen du, egileek horren interpretazio bat eginez, eta pantailara eramateko bi anaiaren arteko istorioa kontatzea aukeratu dute. Migel Joakinen rola Eneko Sagardoik egiten du eta Martin anaiarena Joseba Usabiaga tolosarrak. Azken honentzat esperientzia berezia izan da pelikulan parte hartzea, eta modu berezian ere bizitu zuen Tolosan egindako aurrestreinal-



Denis Itxaso Kultura eta Turismo diputatua eta Maite Cruzado Turismo zuzendaria, Joseba Elduaien Altzoko alkatearekin Segoretzeko obrak ikusten. I.G.L.

dia. Ikustera joan ziren herritarren-gandik «esperotakoa baino erantzun hobe» jaso zuela azaldu zuen Usabiagak.

Tolosako aurrestreinaldian gertuko en berotasuna jaso zuten egileek eta aktoreek. Besteak beste, 150 altzotar izan ziren bertan. Publikoak txalo zaparradarekin hartu zituen taula gainera igo ziren pelikularen taldeko kideak, eta txaloek ere jarraipena izan zuten filma bukatzean.

Altzotar askorentzat berezia izaten ari da *Handia* filmaren inguruan gertatzen ari dena. Horietako bat da Mari Karmen Unsain Eleizegi. Altzoko Handiaren oinordekoa da eta berak amarengandik jasotako hainbat pasarte eta istorio filmean azaltzen direla esan du. Bi ahaideak Ipintza Haundi baserrian jaio ziren, eta Unsainek bere amarengandik jaso ditu Altzoko Handiaren bizitzaren pasarteak. Zinemaldian ikusi zuen filma lehenengo aldiz eta «ederra» iruditu zitzaion. «Gustura ikusi nuen, eta tristura pixka batekin ere bai. Baina ikustekoa da, pelikula ederra da, asko gustatu zitzaidan, eta niri bezala, gehiagori ere bai. Nik gomendatuko nuke pelikula ikustera joatea».

Altzoko herrian eragina

Ikusgai dago noraino eragingo duen Altzoko Handiaren inguruko mugimendu guztiak bere jaioterrian. Pres-

taketa lanak behintzat hasi dira herrian, eta turismo plan bat ere garatu da. Joseba Elduaien alkateak azaldu duenez, azken urteotan izan diren egitasmoak kontuan hartuz, eta bereziki filmaren estreinaldia, «ikusi genuen gai honek nolabaiteko proiektzioa hartuko zuela inguruan, bai guretzako, gure ondare kultural eta historikoa lozorrorekin nolabait esnarazten zuela, baina baita Altzotik harago ere, Tolosaldean zein Gipuzkoan».

Altzoko Handiaren inguruko ikusmin horren aurrean bi aukera zitu zela gaineratu du Elduaienek, «pasatzen uztea kontu hau, gurekin loturarik izango ez balu bezala, edo erronka bezala hartu eta bere tamainan aukerak baliatzea». Bigarren aukera hartu zuten eta hortik etorri zen turismo plana osatzearena, hainbat erakunderekin harremanetan jarritz. Lehenengo ekimena Altzoko Handiari buruz informazioa ematen duten eta leku esanguratsuetan jarrita dauden panelekin ibilbide bat osatzea izan da.

Hortik aurrera jarraitzeko Elduaienek gogora ekarri du Alzoko herri txikia dela eta baliabide mugatuak dituela. «Ikusten genuen *Handia* filmak bere garrantzia eta oihartzuna izango zituela, eta aldundiarekin jarri ginen martxan turismo bulegoa, interpretazio zentroa eta ikus-entzunezko bat prestatzeko». Aurki, 2018 urtearen hasieran, horiek guztiak martxan jartze-

ko asmoa dutela esan du Elduaienek, eta gaineratu du datorren urtean beteko direla 200 urte Altzoko Handia jaio zela. Bestetik, alkateak herritarrei eskertu die gai honen inguruan burutzen ari diren lana: «Udala tresna bat da hau dena garatzeko, baina beraien inplikazioak gabe ekimenak egitea ezinezkoa da».

Bere aldetik, Denis Itxaso Kultura diputatuak azaldu du Altzon «lan bikaina» egin dutela. «Altzoko Handiaren pelikulak sortu zezakeen ikusmina Altzoren mesedetan nola baliatu daitekeen lantzen ari dira. Ikusi genuen ideia boteretsua zegoela. Herri txikietan komunitateak garrantzi handia du eta komunitatea egiteko azpiegitura xumeak behar dira. Altzok une honetan ez du taberna bat ere». Bestalde, Itxasok gaineratu du gaur egun pelikulek zein telebista sailek turismoan izaten ari diren eragina, eta Zumaia aipatu du adibide gisa.

Aldundiko Turismo departamentuan duten egitasmo nagusietako bat turistak Donostian ez daitezela gelditu da, eta horren barruan kokatzen dute aldunditik Altzoko turismo planari emandako 200.000 euroko diru laguntza. «Donostian turista guztiak kontzentratzea ez da ona ez donostiarrarentzat ezta inorentzat ere», esan du Itxasok. «Horretarako argudioak behar ditugu, Donostiara iristen diren milaka turista horiei esan behar diegu

badagoela barnealde bat kondairaz beteta dagoena, istorio ederrak daudela, eta herri txikiak bazter miresgarriak dituztenak. Azken batean, turismoan oso garrantzitsua da bizipen bat izatea, eta Altzok kasu honetan badu gaitasun hori. Badago pertsonaia bat, istorio bat, Gipuzkoan ezaguna dena, eta pelikula berriaren bitartez gehiago zabalduko dena».

Bukatzera doan urteari dagokionez, Altzoko Udalak turistei eta bisitariei behar bezalako harrera egiteko eta arreta eskaintzeko espazio bat sortzeko asmoa du, aurten eskuratu duen Segoretxe eraikinean. Hain justu, bertan hainbat obra egingo dira taberna egokitu eta bisitarientzako harrera zentro bat osatzeko. Aldundiaren laguntzaren zati bat horretara bideratuko da. Diruz lagunduko dituen beste egitasmoak Batzarremuño eraikinean Altzoko Handiari buruzko interpretazio zentroa egokitzea izango da eta pertsonaia horri buruzko ikus-entzunezko dokumental bat egitea.

Panelekin ibilbidea

Sortzen ari den ikusmin horrengatik, eta herritarrek bere herrikideari buruz gehiago jakiteko aukera izan dezaten, Altzoko Udalak eta Kultura Batzordeak Handiari buruzko ibilbide bat osatu dute, eta lau informazio panel jarri zituzten maiatzean, urtebeteko lanaren ondoren. Ibilbidea plazan hasten da, bigarren puntua Eleizegiren jaiotetxea izan zen Ipintza baserria da, hirugarrena Alzo Azpiko eliza, eta frontoia- ren parean bukatzen da.

David Azurzak konposatutako ope-



raren testuak idatzi zituen Koldo Izagirrek, eta berak egin ditu panelen testuak. «Koldo asko inplikatu da», esan du Kultura Batzordeko kidea den Antton Iztuetak. «Idazle honek dakien modu poetikoan eginda daude testuak. Guri asko gustatu zaigu eta espero jendeari ere gustatzea». Testuak bakarrik euskaraz daude; QR kode bat dute panelek eta horien bitartez testuak beste lau hizkuntzetan jaso daitezke: gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta katalanez.


Koldo Izagirrek proposatuta, Juanba Berasategik egin zituen panelen diseinuak. «Guk ez genuen aurretik eza gutzen Juanba Berasategi», esan du Lurdes Murua Kultura zinegotziak. «Oso gertukoa zen, benetan iristen zitzazuna, oso erraza berarekin lana egiteko. Pena handia eman zigun bere heriotzaren berri jakiteak, egun gutxi batzuegatik ez baitzituen ikusi panelek jarrita eta berari sekulako ilusioa egiten zion». Inaugurazio ekitaldian «omenaldi xumea» egin zioten Berasategiri.

Ezizen asko izan ditu Migel Joakin Eleizegik. «Azken aldian *erraldoia* deitzen zitzaion. Altzon, garai batean *jigantea* deitzen zitzaion, eta baita *Haundie* ere», esan du Iztuetak. «Horrekin bueltaka ibili gara eta azkenean Koldo berak proposatu zigun gure he-

rriko ikuspegitik begiratuta deitzea, *Gure Haundie* deitzea. Ondo iruditu zitzaigun eta horrela jartzen du paneletan». Beste kontu bat izan da webgunean edo kanpotik begiratuta nola deitu behar zitzaien. «Pentsatu dugu euskara batuan izan behar duela, eta horrengatik azaltzen da ere Altzoko Handia paneletan».

Ibilbidea osatuta dago eta aurrera begira ere beste zenbait egitasmo dituzte buruan. Batetik, triptiko batzuk prestatu nahi dituzte eta espero dute datorren urte hasierarako prest izatea. Horrez gain webgune bat osatu nahi dute Altzoko Handiari buruz. Bertan, besteak beste, David Azurzak egin duen musikaren edo Koldo Izagirrek bildutako bibliografiaren berri ematea aurreikusten dute.

Altzoko Handiaren ingurukoa «dimentsio bat» hartzen ari dela dio Iztuetak. «Gainera, material berria topatzen ari dira. Luis Angel Sanchez Gomez antropologo madrildarrak liburu bat egin nahi du Handiari buruz. Altzon izan da, eta azaldu zigunez, datu eta informazio asko topatzen ari da Londresen». Iztuetak gaineratu duenez, «alde batetik harrituta gaude nolako bilakaera izaten ari den hau guztia. Bestalde, pozik ere bai; ea orain falta diren egitasmo guztiak osatzen joaten garen».



Alegiako
Udala

**ATARIA ETA BERRIA
LEITUZ
EUSKARAZ
ILUSTRATU GAITEZEN**

Tel.: 943 65 30 16

Tel.: 943 65 10 87

Faxa: 943 65 48 15

alegia@udal.gipuzkoa.net



365 egun euskaraz

Euskararen Egunean 28 herrietan atera ziren kalera herritarrak, euskaraz bizitzearen alde egiteko

Rebeka Calvo

Euskararen Nazioarteko Egunak sortutako aho zapore gozoa atzean utzi ez dugula, Euskaraldiari begira jarri da eskualdea. 2018ko euskalgintzaren erronka potoloena izango da Euskaraldia eta bertan Tolosaldeko euskara taldeak, Galtzaundik, berezibiko garrantzia izango du, eta nola ez baita ATARIA-k ere. Elkarlanean ariko baitira egitasmoa babestuz.

Euskaraldiaren helburua herritarren hizkuntza ohiturak aldatzea izango da, eta orain arte sekula sortu gabeko babes eta batasuna izango ditu, izan ere, Euskal Herri osoko erakunde ofizial eta eragileen babesa jasoko baitu. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte izango da hori, eta horretarako Aho-biziak eta Belarriprestak elkartuko dituzte, baina horretara iristeko, urratsak eman behar dira aurretik, eta pauso garrantzitsuetako asko 2017an eman dira.

Euskararen Nazioarteko Egunak, pasa den abenduaren 3ak, alegia, Tolosaldea batu zuen, beste behin. Galtzaundik lagunduta eskualdeko 28 herrietako herritarrak atera ziren kalera, bakoitzak hizki bat gorpuzteko. *Tolosaldean euskarak 365 egun!!* izan zen aukeratutako leloa, baina hizki bakoitza irudikatzen konpromisoa

hartu zen herriz herri. «Indar berezia eman nahi diogu egitasmo honi, eta ez dugu aurtengo Euskararen Eguna egun bakarreko jaian geratzerik. Seguru aski, gure herrietan posible da, egunero, urteko 365 egunetan, ia ordu guztietan euskaraz bizitzea. Baina guk bi gauza lortu nahi ditugu: bate-tik, ahal dutenak horretara jartzea eta, bestetik, horretarako zailtasunak dituztenen kontzientziak astintzea», esan zuten ekimena aurkezteko eskainitako agerraldi jendetsuan. Euskaraz bizitzeko apustua egin zuten hortaz, Tolosaldeko herritarrek pasa den abenduaren 3an, eta mosaikoa osatu.

Kale neurketa

Hori ez da, dena den, 2017ak utzitako irudi bakarra. Galtzaundik eta Uemak osatutako kale neurketak ere oihartzuna izan baitu bukatzearen urtean. Emaitzak ez dira txarrak, baina hausnarketarako bidea ireki dute, eta lanean jarraitu beharraz ohartarazi dute.

Kezka bazegoen. 2011n Xabier Bengoetxea irakasleak Tolosaldeko lau arnagune, Alegia, Amezketa, Asteasu eta Berastegi, aztertu zituen euskararen erabilera sendotzen ala ahultzen ari ote zen jakiteko, eta lortutako emaitzek piztu zuten kezka.

«Lehen erabat euskararenak ziren eremuetan deskonpartimentalizazioa ematen da. Bi hizkuntzek sarbidea dute eta nahasketa gertatzen da», esan zuten.

Hainbat ikerketek diote herri eus-

kaldunetan euskarak eta euskaldunen kopuruak behera egin dutela eta horri gehitu behar zaio, azken kale neurketek diotela haur eta gazteen artean euskara entzuten dela gehien.

Datu hori da hain justu, Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosaldeko 28 herrietako euskararen erabilera neurtuta atera duen ondorioetako bat. Datuak abendua hasiera eman zituzten ezagutzera.

Datu zehatza da 2 eta 14 urte arteko haurrak direla euskara gehien erabiltzen dutenak, eta atzetik daudela 15 eta 24 urte arteko gazteak.

Galtzaundi eta Uema

Galtzaundi Euskara Taldearen eta Uemaren arteko lankidetzari esker egin zuten kale neurketa. Izan ere, Tolosaldeko herri guztiak ez dira Uemako kide, eta beraz, «Tolosaldeko udal-erri euskaldunen informazio osatua eskuratzeko» aldera egin zuten elkarlana. Zehazki Tolosaldeko 28 herrietatik hamabost daude Ueman. Eskualdeko herri guztiek betetzen dituzte, dena den, Uemako kide izateko baldintzak, hau da, euskaldunen indizea %70etik gorakoa da.

Kale behatzaileek pasa den maiatz eta uztaila bitartean egin zituzten kale behaketa gehienak, baina irakurketa orokorra egiteko Galtzaundik, 2015 eta 2016ko kale neurketetako emaitzak ere hartu zituen kontuan.

Esan behar da, Tolosaldea aipatzean 29 herri hartu zituztela kontuan, Legorreta ere hor sartu baitzuten.

Kale neurketan euskara gehien egiten dutenak haurrak direla ikusi ahal izan zuten. %73,8ko kopurua atera zuten eta hurrengo daturik altuena gazteek eman zuten: %69,2. Helduek %51,3ko ehunekoa eman zuten eta euskara gutxien erabiltzen dutenak adinekoak izan direla ikusi ahal izan zuten, %44,9. Orokorrean, eskualdean, batez ere, euskarazko elkarrizketak entzun zituzten, %56,5, eta hurrengo hizkuntza gaztelera izan zen, %41,4. Beste hizkuntza batzuen erabilera %2,1koa besterik ez zen izan.

Generoari dagokionez, emakumezkoek «zertxobait gehiago» darabilte euskara gizonezkoek baino. Datu hori adin tarte guztietan ematen dela esan zuen Galtzaundik, adinekoetan izan ezik. «Gazteen kasuan, nabarmena da alde hori; emakumezkoek gizonezkoek baino ia 9 puntu gehiagoko aldearekin erabiltzen baitute euskara», esan zuen. Kale behaketak utzitako azken ondorioa ere kezagarria izan daiteke. Izan ere, haurrak bakarrik daudenean, heldurik gabe alegia, %71,6an egiten dute euskaraz, eta nagusiak haurrik gabe ez daudenean %46,5ean darabilte.

76 herri, diagnosi bat

Tolosaldeko datuak Uemak egindako azterketarekin alderatuta, antzeko ondorioak atera daitezkeela ikusi ahal izan zen. Uemak, Soziolinguistika Klusterrarekin batera, eta Galtzaundik egindako kale neurketen datuak gurutzatuta, guztira 76 herri hartu zituzten kontuan, eta hortik ondoriozta-

tu ahal izan zen euskaldunen indizea %80koa edo handiagoa duten herrietan, euskararen erabilera %80tik gorakoa dela; hortik behera, euskaldunak %65-80 diren herrietan, %54koa. Tolosaldean euskara ezagutza indizea %80koa baino altuagoa duten hemezortzi herri daude eta horietako hamabostetan kaleko erabilera ere %80a baino altuagoa da. «Arnasgunean dira euskara ardatz duten herriak. Tolosaldea osorik hartuta, ez da oraindik iritsi maila horretara, baina eskualdeko herrien erdiak baino gehiago dira arnasgune. Euskal Herriko eskualde euskaldunenetakoa gara, bostetik lauk euskaraz dakite gurean. Erantzukizuna ere badakarkigu horrek: hemen eta guk egin ezean, non eta nork?», galdegin nahi izan zuen Galtzaundik.

Biztanle kopuruari erreparatuta, gerroz eta herri handiagoa, orduan eta euskararen erabilera txikiagoa. Hori da joera orokorra, eta hori da ere Tolosaldeko joera.

Eskualdean Tolosa da biztanle gehien dituen herria eta euskararen ezagutza %75,7koa bada ere, kaleko erabilera %44,1era jaisten da. Amasa-Villabona eta Ibarra ere aipatzekoak dira biztanleriari begira; lehenengoan ezagutza 75,3koa da, eta kaleko erabilera %36,2ra jaisten da, Ibarran ere antzeko: ezagutza %73koa bada ere, erabilerak behera egiten du, %48,10ean geratuz.

Herri txikietan berriz, bestelakoa da joera, hori ikusi ahal izan zen kale neurketan. Orexan %96,7koa da ezagutza eta kaleko erabileran %99,6ra





egiten dute gora. Elduainen ezagutza %94,2koa da eta kaleko erabilera %98,1koa, eta Baliarrainen ere antzeko: ezagutza %96,2koa da eta erabilera %91,1koa.

Tolosaldea euskararen arnasgune-tzat jo izan da azken urteetan, arnasgune hitza euskalgintzan hitzetik hortzera dabilen honetan, eskualdean, hortaz, harreman sareak euskaraz egiten direla eta euskara modu naturalean transmititzen dela ondorioztatu daiteke.

Aktibazioaz

Datuak ikusita Galtzaundik aktibatu beharraz hitz egin zuen. «Euskaldunak aktibatu beharra mahai gainean jartzen dute datu horiek. Euskaraz jakitea bermatzen ari da, baina aktibatu egin behar da erabiltzeko, ezagutza igotzeak erabilera haztea ere ekar dezan», esan zuen.

«Lehen pausoa eman dugu neurketarekin. Asmoa ere badugu hemendik urte batzuetara berriro egiteko, eta aldizkotasun finko bat jartzeko, datu konparagarriak izateko. Aktibatzea eta euskararen presentzia kalean ere handitzea dagokigu Tolosaldeko herritarrei. Kontzientziak astintzea eta hautu kontzientea egitea ezinbesteko osagaiak dira eskualdeko 28 herriak goranzko bidean jartzeko», gaineratu zuen euskara taldeak.

Urteko batzarra, Ikaztegietan

Kale neurketa hori Uemak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, egindako urteko batzarrean ere izan

zuten hizketagai. Izan ere, Uemak, urteko batzarra egin zuen eskualdean. 2017ko balantzea egitearekin batera, 2018rako ildo nagusiak onartu zituzten Ikaztegietan eta neurketaren inguruan ere eztabaidatu zuten. Uema osatzen duten 85 udalerri euskaldunetatik joandako ia ehun alkate eta zinegotzi bildu ziren, zehazki.

Bilkuran, besteak beste, hizkuntza-aren ezagutzatik erabilerara dagoen alde zein faktorek eragiten duten aztertzeko egindako ikerketa ekarri zuten gogora, bertan bildutako ondorioak giltzarriak direlakoan udalerri euskaldunetan euskara biziberritzeko. Horri tiraka, Uemak 2018ko plangintzan udalerri euskaldunak zaintzeko, herri-tarrak sentsibilizatzeko eta euskara alor guztietan lantzeko lan-ildoak zehaztu zituen. Horien barruan, Euskaraldia ekimena udalerri euskaldunetan nola landuko duten ere aztertu zuten, Uemak Euskaraldiarekin eta Topagunearekin adostutako *Hamaika egun baino hamaika aldiz gehiago!* proposamena oinarri hartuta.

Uemarekin lotuta Bikain ziurtagiria ere aipatu behar da. Izan ere, Anoetako, Ikaztegietako eta Irurako udalek jaso zuten ziurtagiria. Eskualdetik lehenengo aldia izan da udalak aurkeztu direla Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria jasotzeko, eta prozesu horretan parte hartu zuten hirurek jaso zuten.

Lan horretan Uemak emandako laguntza nabarmendu zuten udalek ziurtagiria jasotzeko egindako ekitaldian.



BIEGUNETAN ESKUALDEA KORRIKA

Apirilaren 4an iritsi zen Korrika Tolosaldera. Otxandiotik (Bizkaia) atera eta ehunka kilometro eginda iritsi zen gurera. *Batzuk* ez, askok egin zuten bat euskararen aldeko aldarriarekin. Lekuko guztiak izaten dira berezi, baina badira nabarmentzen direnak ere, eta lehen egun hartan izan ziren batzuk; Tolosako Raku tabernarena, Laskorain ikastolarena edo Udaberri dantza taldearena, esaterako. Bigarren olatu bat ere egon zen eskualdean, berriz ere itzuli baitziren *Korrikalariak*. Apirilaren 8an izan zen hori eta berezia izan zen benetan, izan ere, ikaztegietatik sartu eta Amezketa zein Abaltzisketa ere pasa zituen, eta 28 urte ziren handik pasatzen ez zela. **ENERITZ MAIZ**



LIPDUB ERRALDOIA, EUSKARAZ ARNASTEKO

Maiatzaren 29an grabatu zen Tolosan *Arnastu Euskara* lipdub-a. Alde Zaharreko kaleetan, eskualdeko 28 herrietako kultur eragile, kirol talde edota politikariak bildu ziren, euskarari behar duen bultzada eta arnasa emateko asmoz. **R. CALVO**



GURASOEK EUTSITA, GAZTEEK ERE EGINGO DUTELAKO

Guraso Eusleen kanpaina abiarazi du aurten, Galtzaundik. Maiatzean egin zuten lehen deialdia eta azarora, bigarrena. Tolosako Herrikide, Laskorain eta Samaniego eskoletako gurasoek euskara hutsean aritzeko konpromisoa hartu zuten. **ITZEAURKIZUARSUAGA**



IBARRAN ETA ANOETAN ERE APUSTU IRMOA EGIN DUTE

I barra-barra euskaraz kanpaina abiarazi zuten Ibarra, norbanakoen, eragile eta udalaren arteko lankidetzari esker. Euskarak Ibarra bizi duen egoerak kezkatuta sortu zuten maiatzean eta helburua «euskalduna aktibatzea» zela esan zuten. Anoetan ere ekimen berezia egin dute aurten, euskarak bizi duen egoera elkarrekin aztertze eta aurrera begirako erronka nagusiak zehazteko helburuz. *Anoetan martxan* izeneko prozesuaren barruan, hainbat bilera egin dituzte. **REBEKA CALVO**

«Hau da gure borroka eta gure jolasa»

Oihana Iguaranek horrela esan zuen Iruñeko finalaurrekoan, azken agurrean. Lan ona egin du amasarrak Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta baita, lehenago txapelketatik kanporatutako Mikel Artolak eta Beñat Iguaranek. Eskualdeko azken ordezkariak, Aitor Mendiluzek, ia bururaino ekarri du txapela.

Jon Miranda

Aurten ospatu den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia jende askok egin du posible. Besteak beste, 18 gai jartzailez eta 20 epailez osatutako taldeak aritu dira lanean eta borondatez aritu diren bertsotzaileek hauspotu dute 14 saiotan 43 bertsolarik egin duten lana. Horietako lau eskualdekoak izan dira: Mikel Artola alegiarra, Beñat Iguaran eta Oihana Iguaran amasarrak eta Aitor Mendiluze irurarra. Lauek printza ederrak utzi dituzte.

Lehen fasean, lehen saioan, Baigorriin, txapelketako lehen bertsoa bota zuen Mikel Artolak. Bosgarren tokian sailkatu, eta tamalez, ez zuen finalaurrekoetara salto egitea lortu. Ale ederak utzi zituen, hala ere, saio horretan. Alaiia Martinekin batera, hamaurreko txikian irrati zuzendariren paperean, euskal musika jartzeko eskaerarik jasotzen ez duen esatariarekin elkarriketan: «Nahiz ez eskatzea

izan / leiken gure kalte / ez eskatuta ere / jarri genezake».

Final-laurdenetan sartu eta finalaurrekoetara sailkatzeko aukera izan du aurtengo txapelketan Beñat Iguaranek. Seguran saio biribila egin zuen. Prentsaurrekoa ematen ari zela, azken galdera erantzun gabe alde egin zuen Mikel Goñiren ahotik kantatu zuen kartzelan: «‘Mikel kartzela joango al haiz?’ / juxtu juxtuan ulertu / nik ez det

Eskualdeko bertsolari batzuk besteak baino urrutiago iritsi dira Txapelketan, baina denek utzi dute beren arrastoa

horren erantzunik eta / epaileari galdetu». Finalaurrekoen lehen fasean Maulen kantatzea egokitu zitzaion azaroaren 4an eta Amasakoak ez zuen nahi adina gozatu. Hor bukatu zen bere ibilia.

Aurtengo txapelketan hiru saio egin ditu Oihana Iguaranek. Leitzako final-laurdena irabazi zuen eta ederki asma-

tu zuen publikoarekin bat egiten. Adibidez, zortziko txikian, Iñaki Apalategirekin. Internetera konektatzeko modurik izan ezean, elkarrekin oporretara joateko asmorik ez zuela esanez: «Retransmititu nahi det / Instagramez dena / besteen inbidia da / oporren onena». Arrazoi askorengatik utzi du Iguaranek arrastoa txapelketan, besteak beste, Leitzan bertan, hasierako agurrean plazaratutako doinu berriagatik. Ismael Serrano kantautore madrildarraren *Papa cuéntame otra vez* kantua moldatuta eman zuen. Harrezkero, bakarkako lanetan erabili izan du *Gaur udaberri bat dabil* doinua.

Durango eta Iruñean kantatu zuen Amasako bertsolariak finalaurrekoetan eta BECen atari-atarian geratu zen; gustura egindako lanarekin. Hain zuzen, bi finalaurrekoetan eskualdeko beste bertsolariarekin, Aitor Mendiluzerekin kantatzea egokitu zitzaion. Durango, esate baterako, saio ederra osatu zuten seiko motzean ikusmen urritasuna zuen Iguarani, tandem



Maialen Lujanbio da 2017ko bertsolari txapelduna, Aitor Mendiluzerekin buruz burukoa jokatu ondoren; 'Gerokoentzat' izan zen txapela, azken agurrean hermaniarak kantatu bezala. ALBERTO ELOSEGI / XDZ

proba batean lehiatzeko porprosamenaz luzatu zion Mendiluzek: «nik gidatu, zuk jarraitu / nik eragin, zuk amaitu / tandemak behingoz / zu eta biok berdinduko gaitu». Azkenenekoan ederki borobildu zuen Iguaranek: «Behingoagatik sentituaz / zer sentitzen dun bata / dauzkazu neke galantak / eta nik indartsu plantak / zu izan zaitez nere begiak / ta ni zure hankak».

Ia hamarrek saioa osatu zuen Mendiluzek Durangon. Bete-betea asmatu zuen ofiziotan eta goia jo zuen puntu erantzunetan, bigarren goan adibidez, *Lehia ez ote dugu / sustatzen gehiegi* puntuari erantzunez: «Txapelketan galdetzen / al didazu neri? / Ez joan besteengana / geure hontan segi / lehia eraikitze / bide izan bedi». Durangon puntu mordo batuta jo zuen Iruñeko finalaurrekora irurarrak eta saio dotorea osatu zuen han ere. Kartzelan Imanol Kamiok sortutako doinua baliatu zuen –Durangon lehen aldiz plazaratua–, *bullyinga* jasaten duen gazte baten ahotik kantatzeko.

Hona bigarren goa: «Hamalau urte ta ezin dira / euren barruan kabitu / edozer eta edozeinekin / libre dela iruditu / ta beste inork ikusiz gero / begiak itxi ohi ditu / nire bizitzan ez nintzan inoiz / horren bakarrik sentitu».

Barakaldon, abenduaren 17an ospatutako finalean kantatu zuen eskualdeko ordezkari bakarra izan zen Mendiluze eta bai goizez, eta baita arratsaldean saio dotorea eskaini ondoren, buruz burukora sailkatzea lortu zuen Maialen Lujanbiorekin batera. Gogoan geratuko dira zortziko txikian, lagun imajinarioaren gaian, elkarrekin egin zuten saioa. Azkenean, txapeldunorde geratu zen Irurako bertsolaria.

Final handia BECen

Orain arte aipatutakoak, eskualdeko bertsolariek txapelketan utzi dituzten aleetako batzuk baino ez dira. «Egin ezazue zuena, eta gozatu dezagun denona». Bertsolariei agindu hori eman zien Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehendakariak, irailean, txapelketa

aurkezteko ekitaldian. Agindutakoa ederki bete dute.

Bere ikusgarritasunean, Bertsolari Txapelketa Nagusia ez baita ekimen isolatu bat, egunez egun, Euskal Herriko herrialde guztietan bertsolaritza bultzatzen ari diren hainbat eragileren lanaren emaitza baizik. *Bertsolari* aldizkarian Oihana Iguaranek esan berri du: «Binaka eta zortzinaka ere hazi daiteke bat, elkarren ideiak eta hitzak altxagarri moduan erabiliz. Hori saioan bertan. Ze hortik kanpo eremu interesgarrietako bat dago, lagun taldeekin egiten dena, sareena, konspirazioena, bertso eskolena, susmagarriena». Hazkuntza horren erakusle horea da txapelketa eta *Argia* aldizkarian Kattalin Minerrek esan duen bezala, gauza asko erabakitzen eta kontsentsuak diren bertan: «Zein mundu ikuskera eskertzen den. Zeri egin diezaiokegun barre eta zeri ez. Zer den fikzioa eta zer norbere galbaketik kantatzea. Nork ordezkatzeko gaituen kulturalki. Zein diren egungo



gai sozialak. Zer den politikoa eta zer ez. Zein anitzak (ote) garen. Zer ekarri erdigunera eta zer utzi atzean». Eta bertsolarietako askok zein errealtate-ri ahotsa eman dioten ikusita, euskal komunitateak onetsi ditu bazterreko mundu horietako asko. Sustrai Colinak, hirugarren sailkatuak, borobildu zuen finaleko bere azkeneko agurrean: «Euskal Herria gelditu / ez dadin euskal erdian / bila ditzagun arnas ta / ardatzak periferian».

Bistakoa da gure hizkuntza gutxituan, txapelketak, eta bereziki, BECe-ko finalak baduela liturgia kutsu bat; autoafirmaziorako eta batzuetan, akaso, autokonplazentziarako abagunea da. 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak, ordea, erakutsi du gauza bat txapeldunaren ahotan laburbildu daitekeena: «Bakea ez da inoiz helduko / bakea joatea da». Berdin bertsogintzarekin. Plazaz plaza segiko dute bertsolariak kristalezko sabaia puskatzen eta 2021eko txapelketako finala bestelako izango da. Hobe.

Bat-batean eta errebotez iritsi zen apirilean Bertso Pilota Argentinara

Apirilaren 9an iritsi ziren Buenos Airesera ekimenean parte hartu zuten zazpi gazteak eta La Plata, Necochea, Bahía Blanca, Viedma eta Rosario hiriak bisitatu zituzten, bertsotan eta pilotan. Oihana Iguaran amasarrak, Iñaki Lizaso billabonatarak eta Arkaitz Esnola txaramarrak hartu zuten parte espedizioan, besteak beste.

Unai Mendizabalek eraman du Osinalde saria

Gabiria. Apirilaren 22an, Gabirian jokatu zen bertsolari gazteentzat 46. Osinalde saria. Unai Mendizabal zizurkildarra izan zen garaile, eta Maider Arregi oñatiarra bigarren. Entzuleen botoek ere *Mendi* izendatu zuten onentzat eta honek kuadrillakoei eskaini zien azken agurra, bereziki, hil berria zen Asier lagunari.

Mallabiko txapelketa Beñat Iguaranentzat

Mallabia. Abenduaren 8an ospatu zen Mallabiako III. Bertsolari Txapelketa. Aurreko bi urteetan Unai Mendizabal izan zen garaile eta aurten amasarrak eraman du txapela. 60 entzuleren aurrean jokatutako finalean, laugarren egin zuen Unai Mendizabalek, hirugarren Txaber Altubek, bigarren Jon Gurrutxagak eta lehen tokian Beñat Iguaranek.

Zintzarria jantzi du Aitor Mendiluzek

Zarautz. Abenduaren 22an, Zarautzko Putzuzulo gaztetxean ospatutako XI. Kopa txapelketan hamar bertsolarik hartu zuten parte eta entzuleen botoek hala erabakita, horietatik sei pasatu ziren hurrengo fasera. Funtzionamendu bera erabiliz, Mendiluze eta Soto sailkatu ziren azken txanparako. Azken ariketen ondoren, bertarututakoek irurarrari eman zioten txapeldun izatearen ohorea eta zintzarria jantzi zioten.

Hamabost egunez Argentinako euskal etxeetan barrena bira egin zuten eta TOLOSALDEKO ATARIA-n kontaktatu zituzten euren ibilerak. Necochean esate baterako euskararen aldeko Korrikan parte hartu zuten eta Aberri Eguna argentinarrekin ospatzeko aukera ere izan zuten.

Rosarion, Pello Mari Otaño zizurkildarraren arrastoen atzetik ere ibili ziren eta haien ondorengoekin egoteko aukera ere baliatu zuten.

Karidadeko Benta vs Am...ona!, derbia Herriarteko finalean

Taldeakako bertsolari txapelketa antolatu zuten urte hasieran, Gipuzkoako herrietako bertso mugimendua «bultzatu, indarberritu eta ikustarazteko». Saretze lana egin eta txapelketa antolatzen 267 lagun aritu ziren, ordezkari, gai-jartzaile, epaile eta bertsolariak kontuan hartuta. Gutxienez sei partaidez –taldearen ordezkaria, gai-jartzailea, epailea eta hiru bertsolari– osatutako 38 talde aurkeztu ziren Herriartekora, horietatik lau Tolosaldekoak: 26+ (Amezketak, Berastegi, Abaltzisketa, Anoeta); Zazpi Astoren Gainean (Alegia); Am...ona! (Amasa-Villabona); eta Karidadeko Benta (Zizurkil-Asteasu).

Azken bi talde hauek jokatu zuten finala maiatzaren 27an Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan eta Haritz Mujika, Unai Mendizabal eta Joseba Otaegi bertsolariak osatutako Karidadeko Bentak jantzi zuen txapela. Amasa-Villabonako taldean aritu ziren, Amaia Agirre, Oihana Iguaran, Ander Goikoetxea *Andriu* eta Beñat Iguaran.





Ogitartekoen tenplu berria.

Denak **GOXO GOXOAK** garagardo on batekin
ezin hobeak. **HARRITUKO** zaituzte.

Denen gustukoak, **BETIKOAK**,
EXOTIKOAK, **FAMILIARRAK**, **XXL**
hori dena gure lagun **SUKALDARIEN** eskutik.



Udaberri dantza taldearen sei belaunaldiak elkartu ziren, irailean burutu zuten 'Dantza Dezagun Tolosa' ekimenean. I.G.L.

Urte oparoa Udaberrirentzat

17

60. urteurrena ospatzeko hamaika ekimen antolatu ditu Tolosako dantza taldeak: saioak, desfilea, dokumentala

Urte berezia izan da 2017a Udaberrirentzat. 60 urte bete ditu Tolosako dantza taldeak, eta urteurrena era berezian ospatu dute, hamaika ekitaldirekin. Nabarmentzekoa irailean burutu zuen *Dantza Dezagun Tolosa* ekimena, taldeko sei belaunaldietako kideak elkartu zituen.

Urte berriarekin batera, webgune berria estreinatu zuen dantza taldeak, ekimenen berri ematearekin batera, artxibo moduan ere erabiliko dute, irudi, bideo eta abar bertan bilduz.

Ekimenen artean, azpimarratzekoa, *Gogoan* emanaldia. San Joan jaien barruan eskaini zuten emanaldia Euskal Herria plazan, eta izenburu hori aukeratu zuten, duela zenbait urte sanjoanek hartzen zuten ekitaldi parte hartzaile hura gogoan. Tolosako Musika Bandarekin eta Tolosako

Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa-ekin elkarlanean eskaini zuen saioa.

Ekainean aurkeztu zuten, baita ere, *Aulkien kulunka* dokumentala. 60 urteetan dantza taldetik pasa direnen 43 pertsonen hitzak jaso dituzte bertan. Urrian, berriz, euskal jantzi tradizionalekin desfilea egin zuten, oihala, adabaki eta apaingarriek zer nolako ondarea osatzen duten ikustarazteko. Hain justu, desfilea iragartzeko eginiko bideoarekin Gaztea Dantzan lehiaketan bideo onenaren saria jaso zuen.

Lazkaoko Dantza Suelto Txapelketako txapela eskualdera

Lazkaoko 37. Dantza Suelto Txapelketako lehen saria eskuratu zuten maiatzean, Alegiako Aritz Maizak eta Lizartzako Maddi Bengoe-
txeak. Bigarren saria Iker Sarasua-Ainara Arrizabalagak jaso zuten eta hirugarrena, berriz, Amets Lizartz-Itziar Bastida azpeitiarrak sailkatu ziren. 14 bikotek hartu zuten parte.

Arabako Dantza Suelto Txapelketan urrea eta zilarra

Xabier Artola irurarrak eta Idoia Besada pasaitarrak irabazi zuten maiatzean, Estibalitzen jokatu zen Arabako XXV. Dantza Suelto Txapelketa. Araba Dantzarien Biltzarrak antolatutako lehiaketan bigarren postua eskuratu zuten Ane Urruzola billabonatarrek eta Iker Sanzek osatutako bikoteak.

Euskal Herriko Dantza Txapelketan ere, bikain

Xabier Artola eta Idoia Besadarentzat izan zen 2017ko Euskal Herriko Dantza Txapelketa. Segura Txapelketaren 40. edizioan bigarren postuan geratu ziren Ane Urruzola billabonatarra eta Iker Sanz bikotea. Gipuzkoar onenen saria eta hobekien jantzitako bikotearen saria ere jaso zuten txapeldunek.

Donostian eta Zarautzen ere podiumean

Xabier Artolak eta Idoia Besadak osatzen duten bikotek Zarauzko Binakako Dantza Txapelketa eta Donostia-ko Dantza Suelto Txapelketa irabazi zituzten irailean. Bi lehiaketetan jantzi dotoreenaren sariak ere eskuratu zituzten. Donostia-koan Villabonako Ane Urruzolak eta Lezoko Iker Sanzek bigarren egin zuten.



Eraikina okupatu zutenetik 20 urte bete ditu bertan Bonbereneak. I.T.

Musikan eta literaturan ekoizpen handiko urtea

Urte amaiera oso emankorra izan da, beste urte batez, bai liburu bai eta disko kopurua kontuan hartuta

Urte bukaera izan ohi da emankorra euskal kultur ekoizpenari dagokionean, Durangoko Azokan aurkezten baitituzte egileek euren lan berriak. Hala, literaturari dagokionean, Harkaitz Cano eta Maite Gurrutxaga amezketarraren *Tigre batekin bizi*, Juan Kruz Igerabide adunarraren *Abezedario titirijario*, Euskal herrietako ipuinak eta *Labur txintan*, Arantxa Iturbe alegiarraren *Honetara ezke-ro*, Joxemari Iturralde tolosarraren *Zatoz nirekin Santiago de Compostelara*, Karlos Linazasoro tolosarraren *6012*, Joxe Manuel Odriozola altzotarraren *Nora goaz euskalduntasun honenekin?*, Garbiñe Ubeda ibartarren *Mejor me callo* eta Iñaki Zubeldia ikaztegiatarraren *Haur literatura aztergai* eta *Tenplarioen altxorra* aurkeztu ziren azokan.

Durangoko azokatik at, urtean zehar aurkeztu direnen artean, Joseba Urretabizkaia eta Joxemi Saizarrek eginiko *100 urte jendaurrean* azpimarrara daiteke, mende baten bueltako Tolosako 24 saltokiren historia eta leku-kotzak biltzen dituen liburua.

Disko ugarik ikusi du argia

Literaturan bezala, musikan ere uztar oparoa utzi du Tolosaldeak 2017 urtean. Bi Bala taldearen *Arazo modernoak*, Eraul taldearen *Iraultza*, Beñat Igerabideren *Geldialdi bakoitzean*, Kiliklon ekoizpenen *1, 2, 3... hemen da Miru*, Glaukomaren *Gure kaiola*, Governors taldearen *Zero...*, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Garratz eta Mingotsekin *Borobilean*, Tenpora taldearen *Itzulika*, Vendettaren *Abducted*, Iñaki Zabaletaren *Ibar ixil batean*, Charlie & The Colours taldearen *Mehaka edota* Inor Navaroren *Geu haur* dira horren adibide, eta horiei Bonbereneak ekoiztitzako lanak ere batu behar zaizkie.

Etenik gabeko kultur ekoizpena

Bonbereneak 20 urte bete ditu 2017ko abenduan; urte berezia izan da, disko ugari, liburu, dokumental eta abarrekin

Abenduaren 23an 20 urte bete ditu Bonbereneak. 20 urteak «markatuta» geratzeko helburuarekin, eta hemendik urte batzuetara begirada atzera botatzean bi hamarkada borobilduta utzi zituztela ikusteko, ohikoa baino uztar oparoagoa izan da 2017an, egun eta kontzertu bereziak, diskoak, liburuak edota dokumentala tarteko.

Bonberenea txarangak Berriozar izeneko diskoa kaleratu zuen urtarrilean. Biniloan eta CDan, diseinu bereziarekin, eta izenburuak aditzera eman nahi duen bezala, inauterietako abesti tradizionalak hartu, horiekin jolasu eta ukitu bereziak emanez gaurkotuta aurkeztu zituzten.

Bonberenea oztopo guztien gainetik izenburupean duela 16 urte egin zuten lehendabiziko bilduma, eta haren ondorengoa izan zen maiatzean argia ikusi zuen *Aspalditik gatoz, urrutira* goaz izenekoa.

Bonberenea Sutan jaialdi berri batez gozatzeko parada ere izan da 2017an. Uda ostean antolatu zuten, eta Bonbereneako kideek azaldu moduan, «Bonberenearen, etxearen egoera munduari erakusteko, eta herriari gutxitan ikusten den bezalako jaialdi handi bat eskaintzeko» aukera eman zuten.

Liburua eta diskoa

Urte amaieran iritsi ziren, bestalde, liburua eta dokumentala. Hamar urte bete zituenean kaleratu zuten *Bonberenea hamar urte bizirik* liburuaren jarraipena da aurkeztu zutena. Tes-tuen ardura Urki Kolinas Bonbereneako kideak izan du, baina, berak esan moduan, «Bonbereneako beste hainbat ekimenekin egiten den moduan, elkarlanean eginiko lana da». Bonberenearen azken hamarkada du oinarrian, beraz, *Bonberenea 20 urte bizirik* lanak.

Liburuarekin batera, dokumentala ere iritsi zen 2017 urte bukaeran. Bertan, Bonberenearen historia eta eboluzioa kontatzen da lagun nahiz pertsonai ugariren ikuspuntutik.



TOLOSA INDONESIARRAK IRABAZLE

49. Tolosako Abesbatza Lehiaketaren Sari Nagusia Indonesiako Resonanz haur abesbatzak irabazi zuen. Bestalde, 2017ko abesbatzen Europako Sari Nagusia ere jokatu zen Tolosan, eta Vesna Children's Choir-ek irabazi zuen.



TOLOSA 50 URTE <<KULTURAREN LIDERGOAN>>

50 urte bete ditu Tolosaldeko Ekinbide Etxeak apirilean. Urteurrenerako pres-tatutako ekitaldien artean *Minotaurora*-ren labirintoa emanaldia azpimarratze-koa izan zen, ehunka tolosarrekin elkarla-nean osatu baitzuten.



AIZTONDO ZUBEROAKO MASKARADAK GUREAN

Asteasu, Larraul, Alkiza, Zizurkil eta Adunak, elkarrekin eta lehen aldiz, Aiz-tondoko Maskaradak antolatuta zituzten maiatzaren. Pettarra eskualde zuberota-ko gazteak gonbidatu zituzten, euren dantza eta antzerkia egitera.



TOLOSALDEA ESKUALDEKOAK ERE ZINEMALDIAN

Handia-z gain, Iñigo Royo tolosarrak eta Iñigo Fernandezek zuzendutako *Ab Alio* film laburra, Koldobika Jauregi atrezzo arduradun den *Dantza* filma eta Barbara Goenaga aktore den *Operacion Concha* izan ziren Zinemaldian.



TOLOSA GURE ZIRKOA ZEZEN PLAZAN

Zezen plaza ametsen mundu txiki bila- katu zuten irailean, Iker Galartzak eta lagunak. Arratsalde bakarrean agortu ziren Gure Zirkuko emanaldietarako sa- rrerak. Ehunka herritarrek gozatu zuten trapezio malabare eta pailazoekin.



LIZARTZA LUIS MARI MUJIKA EUSKALTZAINA HIL ZEN

Apirilean hil zen 78 urterekin Luis Mari Mujika lizartzarra. Euskal Herriko Uni- bertsitateko irakasle eskolan aritu zen irakasle. Nagusiki literatura, toponi- mian, euskalgintzan eta hiztegegintzan egindako lanarengatik izan da ezagun.



TOLOSA LIZARDI ELKARTEAREN 50. URTEMUGA

Laskorain ikastolari lege babesa ema- teko sortu zen duela 50 urte Lizardi el- karte. Urteurrena ospatzeko liburuak, bideoak, egun beteko festak, poesia errezitaldiak eta mahai inguruak izan dira urtean zehar.



TOLOSALDEA ARGIZAIOLA SARIA ASIER GARAGARZAK

Argizaiola sariaren 37. edizioa irabazi du Asier Garagarza Tolosaldeko Argazkilari Taldeko kideak. Gaztetxotatik du ar- nasbide eta pasio argazkiak ateratzea, eta gurean nahiz nazioartean hamaika sari eskuratuak ditu.



ASTEASU MUSKERRAREN EGUNA ONDAREA EZAGUTZEKO

Asteasuren eta Obabaren ondare za- bala eta anitza ezagutarazteko antolatuta zuten Muskerraren Eguna maiatzaren. Bernardo Atxagarekin bisita eta iturria- ren bueltan apostu berezia izan ziren, besteak beste.

A large crowd of people is gathered in a town square at night. In the background, a historic building with a tiled roof and arched windows is decorated with rainbow-colored flags. The scene is illuminated by streetlights and building lights.

BETAZALAK ZILBORRETIK

ALTXATZEAZ

Pintaketek ireki eta festa giroko erasoen salaketek itxitako urtea izan da, 2017a, emakume eta gizonen arteko koskatik begiratuz gero; luzera begirakoa da, oraindik, feminismoak irabazi beharreko egutegia.



Itzea Urkizu Arsuaga

Errepasoek eta atzera-begiratzeek badute malenkonia kutsu bat; berriro itzuliko ez diren garaietara bueltatzeko gogoia, akaso. Batzuetan, ordea, mingarriak dira oroitzapen bildumak, eta 2017ak ere eman du atsekabetzeko arrazoirik: hainbat albiste idatzi behar izan ditu, TOLOSALDEKO ATARIA-k, matxismoak sortutako gertakarietatik.

Kalderero egunean gertatutako erasoaren oihartzunak hartu zituen albiste eta azalak eta, inauteriak amaitu baino lehen, gizon eta emakumeen arteko arrakala zertxobait txikitu zen Tolosan, «zorionez» edo: Ostegun Gizeanean, lehen aldiz emakumeek afaldu ahal izan zuten, Gure Kaiola elkartean, 2011ko gertakariak geroztik. Uda garaiak, berriz, lerroburu ilunetan ilunenak utzi zizkion abuztuari: Villabonako emakume bat Caceresen (Espainia) erail zuen senarrak.

2017ari baztertze sozial handienaren talaiatik begiratu behar baldin ba-

zaio, dena den, bi gertakarik markatu dute urtea, hasi eta buka. Eredu estetikoak kritikatu, zenbait dendatako erakusleihoetan agertutako pintaketen soka luzeak zabaldu zuen urtarrila eta, udazkenetik negurako zubian, berriz, Babarrunaren Festan gertatutako eraso baten salaketa izan da protagonista.

Eskaparateek min, erailketek ez

2016ko abenduaren 30a zen, Tolosako hainbat dendaren erakusleihoak pintaketa morez esnatu zirenean. *Ez gara panpinak* edo *Kontsumo matxistarik ez!* Bezalako leloak idatzi zituzten, eta ekintza ia hizpide bakar bilakatu zen, hurrengo egunetan, polemikaren olatuan.

Ekintzaren adar guztiak kontuan hartu beharrean, kritika «bortitzak» egin zitzaizkola uste dute TNTko kideek, Olaia Uzkudunek azaldu duenez: «Gehiengoak ekintzari jarri zion arreta, mezuan sakontu eta hausnartu beharrean». Neska taldeak, ordea, argi dauka pintaketak zertara bideratuta zeuden: «Kontsumo matxista zen, gure ustez, gai zehatza. Kontsumismo horren barruan emakumeon estereotipo jakin batzuk saltzen dituzte, aniz-

tasunari tarterik utzi gabe, eta denda horiek etengabe birsortzen dute eredu hori».

Dena den, «zapalkuntza bikoitza» ikusten dute kontsumo horretan, argudiatuz, ondasun hori –arropa– ekoizti ahal izateko, klase eta genero zapalkuntza gertatzen dela: «Prekarietate hutsean lanean aritzen diren emaku-

TNTko kideek «zapalkuntza bikoitza» ikusten dute kontsumo matxismoan: klase eta genero zapalkuntza

Berdintasunik eza sistema ekonomikoan abiarazten da TNTren ustez; kapitalismoak bermatzen duela diote

me eta haur guztiei ere erreferentzia egiten zieten pintaketek, esplotazioa salatuz».

Dendetako pintaketak egin baino sei hilabete lehenago, Tolosako zenbait elkarte gastronomikotan ere pintaketak azaldu ziren, elkarte haiek matxistatzat joz. Orduan ere polemika piztu zen, baina herritarren arteko elkarrizketek gehiago begiratu zioten mezuari, mezua zabaltzeko moduari baino: «Mezua zuzenagoa zen eta, gai-



tan harrotu zituzten Tolosaldeko hautsak, eta zenbait herritarrek aldekoen eta aurkakoen artean kokatu zuten beren burua. Besteak beste, iritzi horiek argudiatu zuten, norbere janzkera estiloa aukeratzea askatasuna dela, betiere, onartuz, aukera hori inposatutako estetika baten barruan egindakoa dela. Olaia Uzkudun ados dago argudioarekin, baina, zehaztu du, gaur egun ez dagoela aukera aniztasunik: «Estereotipo jakin batzuk saltzen baldin badituzte, jakin nahiko nuke non dagoen aniztasun hori. Gaur egun, kolore eta oihala aldatzen dira, ez neurriak, eta ez dago aukeratzetik».

Pintaketak egin eta bizpahiru egunera, beste emakume bat erail zuten Espainian; albisteak ez zen ia zabaldu Tolosan

Tolosako Neska Taldea: «Argi dago, arazoak gertu sentitzean bakarrik ateratzen dela jendearen haserre»

2017. urtea ireki zuen gaia izan zen, zalantzarik gabe, dendetan egindako pintaketena. Lantoki, taberna, Whatsapp talde eta bestelako sare sozialak erabat hartu zituen eztabaidak, eta zenbait herritarrei itxaropena ere piztu zitzaion, hausnarketarako gogoia ikusita. Ordea, pintaketak egin eta bizpahiru egunera, beste emakume bat erail zuten Espainian; albiste hark ez zuen halako protagonismorik hartu. «Guk geuk elkarretaratze bat antolatu genuen Trianguloan, eta inor gutxi bertaratu zen. Hasteko, pentsatu genuen, non geratu ote ziren pintaketen aurka beren ahotsa altxatu zuten pertsona horiek guztiak. Egoera surrealista iruditzi zitzaigun, eta jendearen jarraera nahiko hipokrita. Argi dago, arazoa gertu sentitzean bakarrik ateratzen dela jendearen haserre», dio Olaia Uzkudunek.

Urtebeteko distantziatik, zenbait herritarrek gaiaren inguruan hausnartu izana espero dute TNTko kideek: «Publizitate sexista jasotzen dugu etengabe, eta saiatu egin beharko ge-

nera, gizartearen gehiengoak onartzen du, jada, elkarte horietan baztertze bat dagoela. Tamalez, publizitate sexista ez da zapalkuntzat jotzen oraindik eta, beraz, mingarriago suertatzen da pintaketa bat denda batean egitea, elkarte batean egitea baino», azaldu du Olaia Uzkudunek. Gaineratu du, dendak langile xumeekin lotzen direla, eta elkarteak aisiarekin, eta horrek ere zerikusi zuzena izan zuela tolosarren erreakzioan.

Hain zuzen komertzio txikien jardunari begira jarri zen, Tolosako Udalak, 2017 hasieran. Mezuarekin sartu gabe, mezua aldarrikatzeko teknika gaitzetsi zuen, Maite Ruiz de Eguilaz orduko Berdintasun zinegotziak, gutun baten bitartez, eta udalak rol eta estereotipoen inguruko zenbait ikas-

taro antolatu zituela azpimarratu zuen. TNTko kideen ustez, «hori ez da nahikoa». Pintaketak egin zituztenek ez zutela udalaren lanketa kritikatu, hori nabarmendu nahi izan du Uzkudunek: «Matxismoa elikatzen duen sistema bat salatu zuten. Ez da ez bezalako kanpainen ez dute rol eta estereotipoen eraikuntza hori errotik eraldatzen».

Bide horretan, matxismoa arazo sozial baten mugetatik harago kokatu nahi dute TNTko emakumeek: «Gaur egun pairatzen dugun arazoa ez da arazo sozial hutsa: sistema ekonomiko batean abiarazten da, eta hori guztia kapitalismoak bermatzen du. Hori ikusarazi egin behar da».

Erakusleihoetako kristalen gainean egindako pintaketek norabide asko-



nuke, produktu horiek ez kontsumitzen, adibidez, multinazionalak arropa ez erosiz. Bai, politikak dira eta gustuko ditugu, baina, muin-muinean, emakume estereotipo jakin bat erreproduzitzen dute», dio TNTko kideak.

Horrenbestez, bigarrenaz azpimarrarri nahi izan dio kontsumo matxistaren zapalkuntza bikoitzari, azalduz, emakume langilea «kondenatuta» dagoela arropa hori egitera: «Multinazionalak *Everybody should be feminist* leloa daramaten kamisetak erosi aurretik, gogoan izan behar ko gendak arropa hori ekoizteko gertatu den zapalkuntza bikotza: klase eta genero zapalkuntza. Eta, orduan bai, orduan harro esan genezake feministak garela».

Konplizitatea, salaketari

2017ko sanferminetan emakume batek gizon talde bati jarritako salaketak plazaren erdigunea hartu du, festa giroko erasoan inguruko eztabaida piztuz. La Manadaren kasuak mesede eta kalte egin duela uste dute, TNTko kideek: «Horrelako gertakariak segida ekartzen dute, gaiak publiko egiten direnean kopiatzeko ideia sortzen baitaio zenbaiti. Gainera, horrelako erasoan inguruko albisteek beldurra aragotzen dute emakumeengan», azaldu du Uzkudunek.

Dena den, TNTren ustez, eraso baten inguruko epaiketak halako protagonismoa hartzeak alde onak ere badi-tu: «Gaur egun gehiago salatzen dira halako gertakariak eta, sanferminetako auziarekin, jendea konturatzen ari da emakumeen babeserako sortutako legeek ez dutela emakumea babesten. Beraz, tamalez, jendea kontzientzia-tzeko balio izan du».

Izan ere, sarri, badirudi penetrazio-rik gertatu ez baldin bada, ezin dela salaketarik jarri. «Emakumeon hitzak ez du balio, justifikatu egin behar da salaketa; eta salaketa hori penetrazioan oinarritzen da. Baina, non geratzen dira ukituak eta lizunkeriak? Horiek ere

Sarri, badirudi penetrazio-rik gertatu ez baldin bada, ezin dela salaketarik jarri

eraso izaten jarraitzen dute, eta egunero kalean ikus dezakegu gure erasotzailea».

Parranda giroko eraso matxisten gaia, egiazki, astebururo izaten da pilpilean: astebururo gertatzen dira eraso sexistak. Errutinaren begirada horrek, ordea, larritasuna kentzen die ukitu, piropo eta eskatu gabeko hitzei, salaketaren ideia baztertuz. TNTk argi dauka: salatu eta jakinaren gainean jarri behar da komunitatea.

Joan den azaroko Babarrunaren

Festan emakume batek eraso sexista bat jasan zuen, goizaldean; pausoa eman, eta salaketa jarri zuen epaitegian, laguntza eskatu eta gero. Neska taldeak erabat babestu zuen erabakia: «Gizarteak jakin egin behar du gertatu dena, eta jakin egin behar du zer den emakumeok jasaten duguna. Eraso horiek ez dute gai isolatua izan behar».

Horrela, autodefentsa dute erasoei erantzuteko tresna eraginkortzat. Baina, behin eraso gertatu denean, salatu eta informazioa zabaldu eta gero, komunitateak konplizitatea erakutsi behar dio, TNTren ustez, emakumeari; normalean erakusten ez zaionari. Festa giroko eraso sexisten hauspoa baita, inguruko festazaleen konplizitatea eta isiltasuna: «Jendeak beste aldera begiratzen du halako egoeretan, ez dutelako halako saltsa batean sartu nahi. Baina erasotzailea babesten dute jarrera horrekin», dio Uzkudunek.

Aurkakoa lortze bidean, beraz, TNTk berebiziko garrantzia ematen dio, gizarteak eraso horien aurkako mobilizazioetan parte hartzeari: «Erakutsi egin behar da horrelako jarrerak elkarbizitzatik kanpo daudela; eta ez dugu udalek antolatutako elkarretarazteen zain egon behar. Kalera atera behar dugu, erasotzaileak ikus dezan, talde feministak ez ezik, herria ere haserre dagoela; erantzuna kolektibizatu egin behar da».



I IRIARTE JATETXEA

- Eguneko menua
- Karta
- Astebukaerako menua
- Haragia eta arraina parrillan

Pedro Mari Otaño plaza, 1 • ZIZURKIL • 943 692 537

Berezi

NEURRI BEREZIAK

Gazte eta emakumeentzako moda

44-64
neurriak

www.berezitallasespeciales.com

Errementari kalea, 3 , Tolosa / Tel.: 943 674 965



*Zorionak eta
urte berri on!*

berezitallasespeciales f



Tolosaldeko Giltzarriak Tolosako Zerkausan emaitzen berri emateko eskainitako agerraldia. R. CALVO

ERABAKITZEKO GILTZA HARTZEKO PREST

Tolosaldeko 12.370 pertsonak hartu zuten parte Gure Esku Dagoren galdeketa. 'Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko kide izan?' galdera erantzun zuten martxoaren 19an, nabarmendu beharreko data, ezbairik gabe.

Rebeka Calvo

Tolosaldeko Giltzarriako kideak oso kontentu azaldu ziren galdeketa jasotako babesarekin. Tolosaldeko 28 herrietan jarri ziren bozkalekuak martxoan eta 39.442 pertsonak zuten bozka emateko aukera. %31,37ak boz-

katu zuen, 12.370 lagun. Gehiengoak, 11.894 pertsonak, baiezkoaren alde egin zuten eta 273 besterik ez ziren izan ezezkoa erantzun zutenak.

Martxoaren 19an, 09:00etan ireki zituzten bozkalekuak, eta 20:00ak arte egon ziren zabalik. Herri gehienetan jai giroan eman zuten eguna eta ekitaldi ugari antolatu zituzten herri giroa sor-

tzeko. Herri txikienetan parte hartu zuen jendeak gehien. Orexan, esate baterako %82,11koa izan zen parte hartze portzentajea, eta Orendainen zein Baliarainen ere kopuruak altuak izan ziren; %75,78 eta %77, hurrenez hurren. Abaltzisketan bozkatzeko aukera zuten herritarren erdia baino zertxobait gehiagok egin zuen bozkalekurako bidea, %64,07, eta antzeko Alkizan (%54,4), Altzon (%56,33), Belauntzan (%53,3), Bidania-Goiatzen (%51,82), Gaztelun (%52,99) edo Lizartzan (%57,42). Herri handienetan joera bestelakoa izan zen. Parte hartzea %25 ingurukoa izan zen. Tolosan erroldaren %25,98k bozkatu zuen, Zizurkilen %25,48, Amasa-Villabonan %29,48 eta Ibarra %27,08k.

Emaitzak ikusita «erakutsi dugu elkarrekin erabakitzea posible dela, normaltasunez egin daitekeela, ez doala inoren aurka, denon alde baidzik», esan zuen Giltzarriako Beñat Sarasolak martxoaren 19ko igande iluntzean, Tolosako Zerkausan egindako agerraldian. Hotz egiten zuen Zerkausan, baina emaitzen berri jasotzera gerturatutakoen artean giro be-

roa zen nagusi. Eskualdea mobilizatu zen erabakitze eskubidearen bueltan, herritarrak izan ziren protagonista, eta herritarrek osatutako sareari esker izan zen posible herriz herri bozka-lekuak jarri eta galdeketa egitea.

Mugak desegiten

Hiru milioi biztanleko herria da Euskal Herria eta pixkanaka-pixkanaka eskualdez eskualde ari dira zabaltzen burujabetzari buruz erabaki ahal izateko kontsultak. Gure Esku Dago dinamikak du errua. Mugak badaudela esan zuten Tolosaldeko galdeketa egi-

Herri txikietan parte hartu zuen jendeak gehien; Orexan %82,11k eta Orendainen %75,78ak, esate baterako

Gure Esku Dagok 2018an Itun Herritarra osatuko du eta ekainaren 10a mugarri izango dela esan dute

terakoan, martxoan, baina horiek «desegiten» ari direla nabarmendu zuten. «Ezinak, mugak edo paretak agertzen direnean, ikusiko dugu horren handiak diren. Gerta liteke bidearen amaieran pareta irmo bat aurkitzea, baina gerta liteke, baita ere ibiliaren ibiliaz gu iristerako paretarik ere ez egotea, edo jauzi txiki batekin igaro

ahal izatea. Herritarron borondatea oztopo guztiak baino irmoagoa baita», esan zuten Zerkausiko agerraldian.

2018ra begira

2017ak Tolosaldeko galdeketa erantzunak ekarri ditu, baina datorren urtea ere erabakigarria izango da. «Anbizioz» beteriko bide orri bat zehaztu dute eta eskualdeko galdeketa bide horretan «urrats erabakigarria» ekartzeko duela esan zuten Giltzarriako kideek. «Ziur gaude gaur hemen posible izan dena, bihar posible izango dela Euskal Herrian. Bejondeigula denoi», esan zuten.

Izan ere, Gure Esku Dago herri dinamikak 2019a bitarteko bide orria du prest. Tolosaldekoarekin batera, martxoaren 19an, Oarsoaldean, Hernanin, Astigarragan eta Larrabetzun egin zituzten galdeketa, 35 herri guztira. Horietan ere parte hartze esanguratsua izan zen; 124.274 herritarrek zuten botoa emateko aukera eta 30.389k egin zuten botoaren arteko hautua, %24,4a.

Apirilaren 2an Busturialdeko 16 herritan eta Arrigorriagan egin zituzten kontsultak eta maiatzean Bizkaiko Durangaldean, Lea-Artibain eta Uribe-Butroen egin zituzten, eta Gipuzkoako Debabarrena eta Urola Kostan. Ekainean Nafarroako Bortzirietan,

Mendialdean, Sakanan, Basaburuan eta Imotzen egin zituzten galdeketa.

2019a bitarte beste hainbat herri pasako dira erabakitze eskubidearen alde bozka emateko aukera emateko aukeratuen taldera. Eta bide horretan aurki hasiko den urteak berebiziko garrantzia izango du.

Herritarron ekarpena

«2018an erabakitze eskubidea gauzatzeko aukera berriak sortu daitezke eta, zalantzarik gabe, herritarron ekarpena ezinbestekoa izango da aukera horiek posible egiteko. 2018ko plangintzarekin GEDek ateak ireki nahi dizkio erabakitze eskubidea posible egingo duen ziklo berriari. Gure esku dagoen guztia egitera goaz», esan berri dute herri dinamikako kideek.

Horri begira, datozen hilabeteetan «ezinbesteko oinarri hori sendotu nahi» dutela esan dute, «gure etorkizun politikoaren eztabaidan gizartearen parte hartzea bideratzeko tresna eraginkorrak sortuko genituela esan genuen eta Herritarron Ituna martxan jartzera goaz».

Herritarron Itunarekin erabakitze eskubidea edukiz betetzea dute helburu, eta lan horretarako dinamika herritar eta parte hartzaileak ezinbestekotzat jo dituzte. «Ekainera bitartean, euskal herritarrok zergatik eta zer-

tarako erabaki nahi dugun jasoko dugu Herritarron Itunean, arloz arlo eta herriz herri», esan dute.

Ekainaren 10a da bide orri honetan hurrengo geldialdia, egun horretan, mobilizazio bat egin dute «erabakitzeko arrazoiak erakusteko eta indartzeko eguna» izango delarik.

Ekainetik aurrera, Euskal Herriko eragileek bat egingo duten Herri Ituna sustatuko du Gure Esku Dagok. Euskal Herriko eragileen artean herri gisa erabakitzeko behar diren «konplizitateak eta adostasunak» jostea izango du helburu Erabakitzeko Eskubidearen Aldeko Herri Itunak. «Guztiok bat egin-

da soilik lortuko baitugu aurrerapauso sendoak eta eraginkorrak ematea», esan dute.

Orain arte 180 herritan egin dituzte galdeketak eta erronka orain, galdeketak hiriburuetan egitea izango da. Donostian dagoeneko abian da prozesua. «Hori bai, tokian tokiko testuingurua eta erritmoak errespetatuko ditugu». Zentzu horretan Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian hasitako herri galdeketa lan ildoak 2018an bukatuko dute eta Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, 2019an.

«Lau urteotan milaka euskal herritarrok erabakitzeko borondatea, konpromisoa eta determinazioa adierazi

dugu. Jabetu gara erabakitzeko aukerak sortu eta aldarrikatzeaz gain, erabakitzeko prest egon behar garela, gai izan behar garela eta bide hori babestu eta sustatuko duen gizarte zibil sendo eta zabala behar duela herri honek».

Abiarazitako proiektu erraldoia gauzatu ahal izateko, ordea, Gure Esku Dago «indartsua» behar dela esan dute, eta horri begira bi dira eman dituzten urratsak. Batetik, bazkideen figura indartuko dute eta, bestetik Tripontzia Urteberriko Saria kaleratu dute. «Bi iturri horien emaria ezinbestekoa izango da erronka berriei heltzeko».



Herriz herri ekitaldiak antolatu zituzten eguna girotzeko, lehen irudian Amezketan. Bigarrenean Villabonako bozkaleku bat. N.R.A. - J.M.

«Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako»

Martxoaren 19koa egun garrantzitsua izan zen, baina baita aurreko zein ondorengo egunak ere. Aurretik herriz herriko lanketak egin zituzten eta guztietan izan ziren herritarrak protagonista. Herritarrekin batera hautetsiak ere atera ziren lehen lerrora eta Bidania-Goiazko Iriarte jauregian argazki jendetsua atera zuten.

Eskualdeko 28 herrietatik 24etako hautetsiak izan ziren bertan Tolosaldeko Giltzarriak gon-

bidatuta, EH Bildukoak, EAJkoak eta independenteak. «Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako», esan zuten.

Gorka Egia Orendaingo alkateak hartu zuen hitza euskaraz eta esan zuen alkate zein hautetsiei udaleko giltza, herriak eman ziela eta «orain ere, herriari dagokio hitz egitea. Zuek duzue giltza. Zuek zarete giltzarri, guztiok gara herri. Giltza, herria, erabakia».

Erabakitzeko eskubidea «gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena» dela berretsi zuen eta eskualdeko herritar ororen bilgunetzat hartu zuten Giltzarria. Erabakitzeko

ariketa aurrera eramateko, parte hartzea «ezinbesteko baldintza» bezala dute eta esan dutenez, «martxoaren 19an erabaki nahiaren espresio» izateko nahiaz mintzatu ziren; «ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri».

Bukatzeko, European martxan dabilen trenera igotzeko gonbita luzatu zuten, «Euskal Herriko gel-tokira iritsi da trena, baita guk gobernatzen ditugun herrietara» eta honako galderaren inguruan iritzia ematera animatu zituzten herritarrak: «Nahi al duzu euskal estatatu burujabe bateko herritarra izan?». «Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu», esan zuten.

Ataria bertso jaialdia 2018

 **tolosaldeko
ataria**
www.ataria.eus • 107.6 fm

Urtarrilak 20, larunbata.
19:30. Tolosa, Leidor.



Agin
Laburu



Aitor
Mendiluze



Amets
Arzallus



Andoni
Egaña



Beñat
Iguaran



Maialen
Lujanbio



Gai jartzailea:
Amaia
Agirre

Sarrerak Atarikideentzat, 8€

Egin zure erreserba urtarrilaren 5era bitarte.
Gehienez 2 sarrera bakoitzak.
Deitu edo idatzi:
943 65 56 95 edo atarikide@ataria.eus-era.

Antolatzaileak



Babeslea



Loguntzaileak





HERRITARREN BABESA ESKERTUZ AGURTU DA GAZTEAK KALEAN EKIMENA

Gazteak Kalean egitasmoa abiarazi zuten Tolosako hainbat gaztek 2016an. Bi auziren inguruan sortu zuten: Tolosako Ezpala gaztetxearen desalojoaren harira auzipetutako bi gazteei eta Intxurreko auzian auzipetutako beste hiruri babesa agertzeko. Azken horretako gertakariak 2015eko Inauterietan eman ziren eta 38.000 euroko zigor ekonomikoa eta bost urte erdirainoko espetxe zigorra jasotzeko arriskua izan zuten. Uztailen jakin zen, dena den, ez zituztela espetxeratuko eta auzia 37.000 euroko indemnizazioa ordainduz eman zuten bukatutzat. «Bi auzietan inputatutako bost gazteak ez dituzte espetxeratu, baina ezin dugu ahaztu zigor ekonomiko handiak jaso ditugula», esan zuten auzipetutako gazteetako batek ekimenak bukatutzat emateko egindako festan. I. URKIZU

Sexu abusuak egotzi dizkiote

Juan Kruz Mendizabal 'Kakux' apaiza zigortu zuen Elizak, sexu abusuak egotzita; gutxienez lau salaketa jaso ditu elizgizonak

Rebeka Calvo

Urtarrilean lehertu zen albistea; Juan Kruz Mendizabal *Kakux* apaizak sexu ukituak egin zizkiela salatu zuten hainbat gizonen bidez. Elizak salaketak ezkutatu bazituen ere, argitara atera ziren azkenean. Donostiako gotzain Jose Ignacio Munillak iazko martxoan izan zuen salaketen berri, eta handik hilabetera kargugabetu zuten Juan Kruz Mendizabal, *Kakux*, apaiza, baina auzia urtarriela inguruan zabaldu zen komunikabideetan. Tolosarekin lotura du bere apaiz ibilbidea bertan hasi baitzuen eta Santa Maria parrokiaren apaiz izandakoa delako, besteak beste. Gazteekin harreman asko izandakoa ere bada adingabeekin jarduerak asko egin izan dituelako, eta Gazteen Pastoraltzako arduraduna ere izan zelako.

Munillak kargugabetu arte Gipuz-

koako bikario nagusi izan zen *Kakux* eta Gotzaindegiak zabalduetako informazioaren arabera, 2001ean eta 2005ean gertatutako abusuak jasotzen ziren salaketa horietan, zehazki bi adingaberi egindako «ukituak» aipatzen zirelarik.

Ohar baten bidez Eliza katolikoak jakinarazi zuen gertakariak «egiazta» ostein, Mendizabal errudun jo zutela eta «zuzenbide kanonikoan jasotako zigorrak» ezarri zizkiotela.

Gotzaindegiak zabalduetakoaren arabera, bi adingabekori «ukituak egitea» leporatu zitoten.

Tolosan apaiz izandakoak bere burua erruduntzat jo zuen, adin txikiko-
ei ukituak egiteagatik, baina fiskaltzak kasua artxibatu zuen; elizako justiziak irekita du oraindik.

Itxialdiko monasterioan egon zen lehenik, sexu abusuak egitea leporatuta zigortutako apaiza, baina gerora itxialdia utzi, eta bere jaioterriara itzuli zen, Ormaiztegiara.

Mediku batek tratatuko zuela zabaldu zen orduan eta beste elizgizon baten tutoretzapean, terapia psikolo-

giko eta espirituala egiten aritu zela ere esan zuen Elizak.

Salaketa ugari

Urtarrilean salatu zuten zenbait gizonen aurka zirenean sexu abusuak egin zizkiela Mendizabalek.

Ezagutzen ziren kasuak 1994koak, 2001ekoak eta 2005ekoak ziren, eta kasu horiek preskribatuta zeudela-
koan Gipuzkoako Fiskaltzak artxibatu egin zituen horien harira zabalduetako diligentziak. Ez zuten baztertu, ordea, auzia berriro aztertzea testigantza gehiago jasoz gero. Ikerketa egiteko bideetako bat izan baitaiteke kasu gehiago agertzea, Mendizabalen portaera «jarraitua» izan zela ikustea, eta horren arabera neurriak hartzea.

Hiru testigantza horiei, dena den, beste bat gehitu zitzaion otsailan. Gizon batek azaldu zuen 14 urte zituela abusuak jasan zituela, udaleku bartzuetan, eta zerrenda ez dela bere horretan geratuko ere esan zuen, «kasu gehiago izango dira», esan zuen gizonen kasuak.



30 BAT PERTSONA ARTATU BEHAR IZAN ZITUZTEN USABALGO IGERILEKUAN

Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan 28 pertsona artatu zituzten, uztaillean. Kloro intoxikazio bat eman zen eta igerilekua hutsarazi behar izan zuten. Gas isurketa kiroldegiaren sotoan eman zen eta barruko igerilekura barreiatu zen gasa. Horren ondorioz, Usabal kiroldegiko barrualdea hutsarazi zuten eta 28 pertsona artatu gasa arnasteagatik. Ez zen ezer larririk gertatu, baina igerilekua jendez lepo zegoen eta urduritasuna zabaldu zen bertan zeudenen eta kanpoan anbulantzia eta bestelakoak ikusi zituztenen artean. ANE URKOLA

30

Elkartasunez gainezka

Errefuxiatuei laguntzeko, neguko arropak bildu zituzten hainbat herritarrek, Belgradera eramateko

Rebeka Calvo

Asmoa errefuxiatuei negua nola-bait samurtzea zen. Herritar talde batek neguko arropak jaso eta Belgradera (Serbiako Errepublika) eramateko konpromisoa hartu zuen, eta herritarrei eskatu zizkieten neguko arropa horiek. Erantzuna sekulakoa izan zen eta Tolosako San Frantzisko-ko elizako elizpea goraino bete zuten jendeak emandakoarekin. Eskualdeko beste hainbat puntutan ere egin zituzten bilketak. Bi kamioi bete zituzten azkenean, lehena uste baino arazo gehiagorekin, baina iritsi zen Belgradera. Eta bestea ere iritsi, iritsi da, baina beranduago; orain gutxi eraman dute Greziako Lesbos irlara.

Neguko arropak eskatu zituzten, baina ez bakarrik, 5.000 kilometroko joan-etorria dago Tolosatik Belgradera eta errepideetako ordainsarien kos-



Iñigo Terradillos kazetariak kontakizuna egin zuen Belgradetik. I.T.

tuak ere kalkulatu zituzten. Herritarren erantzuna bikaina izan zen eta arropez gain, diru ekarpenak jaso zituzten bidaia egin ahal izateko.

Errefuxiatuen egoera kezkarria ikusita animatu ziren Bidaiarien Txokoa eta Zumardia elkarteetako kideak ekintza burutzera eta horretarako

hainbat Gobernu Kanpoko Elkartekin jarri ziren harremanetan, bildutako behar zutenei iritsiko zitzaizela ziurtatzeko.

Bidaia horretan izan zen ere ATARIA, Iñigo Terradillos kazetaria ere joan baitzen Belgradera, kontakizuna egiteko.



60 URTEKO HISTORIA GORDETZEN DU VILLABONAKO ORIAMENDI AUZOAK

Maiatzaren 1ean ospatu zuten festa handia Villabonako Oriamendin, 60 urte bete baitzituen auzoak. Francoren gobernuak etxebizitza politika arautzeko eta gizarte eredu jakin bat bultzatzeko Espainiako Etxebizitza Erakundea sortu zuen eta Oriamendi auzokoaren gisakoak sustatu zituen. Horrez gain, gobernuak Etxebizitzaren Obra Sindikala eratu zuen, FET eta JONSen mendekoa. Villabona bertako eta Asteasu, Aduna, Irura eta Tolosa bezalako inguruko herrietako bikote gazteak jarri ziren 1957an Oriamendi auzoan bizitzen. J.M.



AMAROZTARREK EGIN DUTE AUKERAKETA

Botoa emateko eskubidea zuten amaroztarren %46ak hartu zuen parte hiru proiektu-
ren artean aukeraketa egiteko abiarazitako galdeketa. Auzoetxea eta anbulatorioa
berritzea jasotzen zuen proiektuak izan zituen boto gehien. REBEKA CALVO



HERRI OSTATU BAT BAINO GEHIAGO, EREDU BERRI BAT

Abendua hasieran inauguratu dute
Orexako Ostata. Ez da proiektu berria,
Orexa Bizirik proiektuaren muina baita,
eta hilabeteak eman dituzte guztia
atontzen. Herritarrei begirako inau-
guzioa egin dute, baina proiektu osoa
udaberrirako izango dute prest, hala
ere. Ostatuaren eraberritzea eredu be-
rri baten barruan kokatu dute. ATARIA

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

TOLOSA:

J. L. MUÑAGORRI HARATEGIA - Gorosabel, 5





NEKANE TXAPARTEGIK SUITZAN JARRAITU AHAL IZANGO DU

Suitzako Justizia Auzitegi Federalak jakinarazi zuen baztertu zuela Asteasuko Nekane Txapartegiren asilo eskaria, haren aurkako auzia preskribaturik geratu ostean. Txapartegi irailean geratu zen aske eta Espainiako Auzitegi Nazionalak preskribatutzat eman zuen hari egotzitako delitua, eta, horrenbestez, bertan behera gelditu zen haren kontra Espainiak egin eta Suitzak onartutako estradizio eskaria. Iazko apiriletik zegoen Txapartegi behin-behinean preso, Zurichen (Suitza). Justizia Auzitegi Federalaren ustez asilo eskaerak ez zuen funtsik, ez baitzegoen haren aurkako estradizio eskaerarik. ATARIA

Presoen egoera salatu dute

33

Ekitaldi asko egin dira euskal preso politikoen egoera salatzeke; gaixo daudeneko egoera nabarmendu dute

Rebeka Calvo

Ez dira gutxi izan azken hilabeteetan euskal preso politikoen askatasuna eskatzeko egin diren ekitaldiak. Horietako asko Sare eta Kalera, Kalera ekimenek sustatutakoak izan dira eta helburu bakarra izan dute; presoen Euskal Herriratzea eskatzea. Larriki gaixo dauden presoengan jarri dute azpimarra, gainera. Izan ere, legeak etxean behar dutela badio ere, euren etxeetatik ehunka kilometrotara daudela salatu izan dute senitarteko eta lagunek, gizartearen babesarekin.

Manu Azkarate tolosarra da horietako bat. Espetxean dago, nahiz eta larriki gaixo egon, eta eskualdean protesta bat baino gehiago egin dira hori salatzeko. Ekitaldi bat baino gehiago egin dira kalean; Alegian itxialdia egin zu-



Sarek argazki jendetsua atera zuen Tolosako Zerkausian, 'Salatzen dut' kanpainaren barruan. I.U.

ten udaletxean, Villabonan Aiztondora Eguna egin zuten, Kalera Kalera Martxa ere egin zen Euskal Herri mailan eta eskualdean egin zuen geldialdia... Eta ez dira gutxi ere, egindako elkarretaratze eta manifestazioak.

Bestalde, duela hilabete inguru Gazteluko Andoni Goikoetxea euskal preso politikoa geratu zen aske.

Era berean, *Naparraren* kasua ere albiste izan da 2017an. Joxe Migel

Etxeberria *Naparraren* gorpuzkia aurkitzeko saiakera egin zuten Labrit herriaren ondoan, baina ez zuten ezer topatu. *Naparraren* familiak baserria du Lizartzan eta bertan omenaldia egin diote urtero, ekainean. Aurten ere egin zioten eta ama eta anaia izan ziren bertan.

Naparra 1980. urteko ekainaren 11n ikusi zuten azken aldiz. Batallón Vasco Español erakundeak erahil zuen.

FESTAK ETA FESTAK

Urte osoan ez da festarik falta izaten, baina festen hilabetea abuztua da. Eskualdeko herri gehienek orduan ospatzen dituzte herriko festak.



LARRAUL



ALTZO



BERASTEGI



IKAZTEGIETA



ALBIZTUR



BALIARRAIN



ORENDAIN



HERNIALDE



ADUNA



ZIZURKIL



GAZTELU



BIDANIA-GOITZ



AMEZKETA



IBARRA



BERROBI



Asteasuko Echesan protesta ugari egin dituzte 2017an; argazkian gaixo agiriarekin zegoen langilearen kaleratzea salatzen pankarta. JON MIRANDA

Murritzketetatik prekarietatea

36

Sektore ezberdinetan lan baldintza duinak eskatzeko mobilizazioak burutu dituzte Tolosaldeko langileek

Jon Miranda

Urtea lorpen handi batekin hasi zuten errepideen zaintzako langileek. Gipuzkoan lau dira errepideen mantentzeaz eta ustiapenez arduratzen diren ABEEak (Aldi baterako enpresa elkarteak), eta horietatik hiruri eragin zien 315 egun iraun zituen grebak. Ordainpekoak ez diren errepideen %75-%80ren mantentze lanez arduratzen dira, gure eskualdea zeharkatzen duen N-1 errepidea barne. Goierrialdea 2014 ABEEak bere lan hitzarmena sinatu zuen urtarrilaren 17an eta ituna 2019ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Gainera, Espainiako lan erreformaren kontrako klausula txertatu eta horrek ahalbidetuko du, behin bukatuta, lan itunak aurrera eragin mugagabea izatea; Bestetik, «soldata igoera nabarmenak» adostu zituzten: %9 eta %11 bitartekoak, katekoerien eta beste xehetasun batzuen arabera.

Hain zuzen, errepide horretan gora

eta behera ibiltzen diren autobusen zerbitzua aldatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen aurreproiektuak eztabaida piztu du. Lurraldebusen Buruntzaldeko zerbitzua berrantolatze-ko asmoak, Tolosa eta Villabona bezalako udalerriei eragiten die. Zerbitzua ematen duten Garayar, Areizaga eta TSST enpresetako langileek, ELA, LAB eta UGT sindikatuen babesarekin, «murritzketen kontra» elkarretaratzea egin zuten azaroan. «Gizartearen interes orokorra interes ekonomikoaren gainetik jarri behar dela» uste dute autobusetako langileek eta aldundia kontrako norabidean ari delakoan daude. Zerbitzua hiru enpresaren artean ematen dutenez, ezinezkoa zaie zehaztea aldundiaren proposamenak zenbat langileei eragingo dien. Aurreikusten dute lanpostuen herenak arriskuan leudekeela. Gainera, salatu dute aurreproiektuak jasotzen dituen neurriek gidarien «lan erritmoak handitzea eta atsedendialdiak laburtzea» eragingo luketela, eta «lan istripuen arriskua izugarri handituko litzatekeela».

Egoera bertsuan daude Tolosaldea Bus enpresako 26 langileak ere. Besteak beste, jai egun askotan lan egin behar izaten dutela argudiatu dute eta

protesta egiteko abendu hasieran egin zuten elkarretaratzea Tolosan San Frantzisko pasealekuko geltokian. Lan baldintzak eta egutegia kontuan hartuta soldata «baxua» dutela iritzita, igoera eskatu zuten. Zuzendaritzaren erantzunik jaso ezean, urtarrilaren 8, 9 eta 10ean greba egingo dute autobus gidariek. Tolosan eta eskualdeko herrietan ematen du zerbitzua enpresak.

Bigarren sektorea eusten

Lan hitzarmen duin baten aldeko protesta ugari izan da 2017an. Bide hori abiatu zuten Asteasuko Echesa lantegian 2016ko urte bukaeran, eta aurtan, gaixo agiriarekin egon eta kontratu mugagabea zeukan langile bat kalera- tu ondoren bost eguneko greba egin zuten beharginek. Protestek ez zuten emaitzarik eman. Siemens eta Gamesa iazko urte bukaeran egin zuten bat eta langileak «mesfidati» agertu izan dira fusioarekin. Azaroan iragarri zuen multinazionalak Euskal Herriko lantokietan 155 langile kaleratzeko asmoa zuela. Bulego nagusi eta biltegietan egin asmo zituen kaleratzeak eta Echesari, printzipioz, ez zion neurriak eragin. Handik egun gutxira, abendu hasieran iragarri zuen Siemens-Ga-

mesak ez dituela kaleratze «traumatikoak» egingo. Asteasun mobilizazioak egin zituzten despidoak salatzeo eta presio horrek ekarri zuen emaitza LAB, ELA, UGT eta CCOO sindikatuak esan zuten bezala. LABek, adierazi duenez «fusioarekin akziodunek 1.047 milioi euroko irabaziak jaso zituzten. Eta fusioaren egiteko erabakia hartu zuten zuzendaritzako kideek 82 milioi euro jaso zituzten azken hilabeteetan eragiketa honen ondorioz. Hau izan da fusioa benetako arrazoiak: gutxi batzuk aberastea nahiz horren ondorioz lanpostu asko kolokan utzi». Kritika egin dio LABek Eusko Jaurlaritzari, «ehun industrialaren zutabe garrantzitsua izan beharko litzatekeen Gamesaren egoera, industria politika ezaren ondorioa da. Zergatik txalotu zuen Arantxa Tapiak fusioa, esanez helbide soziala Euskal Herrian gelditzen zela eta hori nahikoa berme zela?».

Bestalde, ekainaren 6an abiatu zuten greba mugagabea, Irurako Euskal Forging lantegiko 43 langileek. 2015aren amaieran iraungi zitzairen aurreko lan hitzarmena eta 2016ko urritik ari ziren berria negoziatzen. Langileen ordezkariak, ordea, ez zuten adostasunik lortu enpresa jabeekin, eta honenbestez, ekaina hasieran jo zuten grebara. Bi astez lanera joan gabe pasa ondoren, azkenean, adostasuna lortu zuten langileek enpresa buruekin. 2016, 2017 eta 2018rako, urteko 770 euro lineal eskatzen zituzten langileek eta hori islatuta gera zedila euren lanskarietan. Enpresa buruek proposamen ezberdinak egin ondoren, urteko (2016, 2017 eta 2018) 650 euroko kontsolidatutako soldata igoerari baiezkotza eman zioten langileen gehiengoak asanbladan. Langile ordezkariak esan zuten bezala, «hobekuntza nabarmena» lortu zuten ezgaitasun egoeratarako: «Istripuagatik %100 ko-

bratuko dute langileek eta gaixotasu-nagatik lana utzi behar dutenen kasuan soldataren %80a jasoko dute lehen hilabeteetan eta %90 bigarren hilabetik aurrera».

Bi astez egin zituzten, baita ere, lanuzteak Lizartzako Insalus enpresan. Nagusiek jarrera aldatu eta hitzarmen duin bat sinatzea lortu zuten martxoaren erdialdean. Hitzarmenarekin batera aurtengo soldatetan %4,4ko igoera adostu zuten eta gainerako urteetarako KPIa + %1eko igoera. Era berean, lan erreformen aurrean hitzarmena blindatzea lortu zuten eta baita baldintzak betetzen dituzten langileei txandakatze kontratua egiteko konpromisoa ere. Honekin guztiarekin batera, enpresak langileekin zuen zorra kentzea ere lortu zutela nabarmendu zuten Insaluseko langileek.

Berdina gertatu zen otsaila bukatzean Elduako Munksjö paper fabrikari. 2016ko urtarrilaz geroztik negoziaketetan egon eta lanuzteak egin ondoren, akordioa batera iritsi ziren greba mugagabea hasteko atarian. Azkenean adostasunetara iritsi ziren eta beraz datorren urtera arteko lan hitzarmena dute mahai gainean, eta baita 2021a bitarteko *non stop*ari dagokion akordioa.

Villabonako Artea enpresako langileak ordubeteko lanuzteak egin zituzten apirilean hiru egunez. Enpresak obra kontratua zuten hiru langile kaleratu zituen hil horretan. Maiatza bitarteko obra kontratua zuten eta bukatzerakoan kaleratu zituzten. Langile ordezkariak orduan salatu zuten bezala, geroz eta aldi baterako langile gehiago hartzen dituzte enpresan eta horrek prekarietatera daramatza. 90eko hamarkada hasieratik Amasa-Villabonako Legarreta auzoan kokatuta dago kautxu eta metal arloan lan egiten duen enpresa. 60 urte bete dituela eta

ekitaldia egin zuten lantegian maiatzaren 19an.

Bezperan, Apataerreka industrialdeko Lizarra garbiketa industrialeko enpresako lehorgailu batean leherketa izan zen eta lau langile larri zauritu ziren. Handik egun gutxira ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek elkarretaratzea egin zuten industria gunean: «Horrelako lan istripuak prekarietatearen ondorio izaten dira». Sindikatuek lan segurtasuneko neurriak bete daitezela eskatu zuten eta nabarmendu zuten Lan Prebentziorako Legea %100ean ez dela betetzen.

Zaintza erdigunean

Enplegu duinari sorreran atzerapausoak eman badira aurtengo urtean, are murrizketa handiagoak izan dira zerbitzu sozialetan. Pertsona helduak, mendekotasuna dutenak, gaixo, haur eta umeak artatzeaz arduratzen diren langileek geroz eta egoera kaxkarragoan aritu behar izaten dutela salatzen dute.

Kabiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako departamentuari atxikitako organismoak, udal titularitatekoak diren adineko pertsonentzako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako hamasei egoitzak –tartean, Tolosako Iurreamendi eta Villabonako Santiago– eta eguneko zentroen kudeaketa bere gain hartuko du, Eusko Legebiltzarrak 2008an onartutako Gizarte Zerbitzuei buruzko legea kontuan hartuta. Irailean, Iurreamendi egoitzako udal langileen izenean hitz egin zuten ordezkariak ELA, LAB eta Satse sindikatuetako kideek. Kabiak erakundera eskualdatzeak langile finkoen nahiz behin-behinekoen kontratuaren zein eragin izango duen jakin nahi dute eta 2013an onartutako lanpostu antolake-



2017an mobilizazio egutegia abiatu dute Asuncion klinikako langileek lan hitzarmen duin baten alde. ITZEA URKIZU

38

ta eta balorazioarekin zer gertatuko den.

Haserre daude, baita ere, Asuncion klinikako langileak eta euren lan baldintza «prekarioak» salatzen elkarretaratzeak, lanuzteak, egun osoko grebak eta kotxe karabanak egin dituzte abenduan. Langileen batzordeak bi eguneko greba egiteko asmoa duela azaldu du, urtarrilaren 8an eta 9an. ELA eta LAB sindikatuek «aldebakartasunez jokatzeko» egotzi zioten zuzendaritzari azaroan eta, salatu, azken zazpi urteotan galera ekonomiko handiak izan eta soldatak izoztuta eduki dituztela. Langile batzordeak salatu zenez, urtean 1.670 orduko lan-jarduna dute: «Oso urrun gaude asteko 35 orduetatik eta, 2010. urteaz geroztik, ez dute murriztu Asuncion klinikako langileen lan-jarduna». Horrekin batera, «pertsona falta, kontratazioetako irregularitasuna eta lan-kargaren handitzea egunerokotasunean» bizi dituztela nabarmendu zuten, gaineratuz, «prekarietate sistematikoan» bizi direla. Klinikari aitzen ziren lau traumatologok lana utzi dutela eta ez dituztela ordezkatu salatu zuten langileek. Bestalde, fokua jarri zieten Jesus Gomez Montoya Invizako buruari eta Jon Darpon Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari: «Egoera honen ardura beren gain hartzeko eskatu nahi die-

gu. Asuncion klinika kontzertatua da, eta 65.000 pertsonaren osasuna klinikaren esku dago. Horregatik, Montoya arduraduna da, eta Darpon konplizea».

Kalitatzeko hezkuntza publiko baten aldeko aldarria presente egon da 2017an Tolosaldean. LAB, ELA eta Steilas sindikatuek Eskubide Sozialen Kartan bildutako oinarriak aintzat hartzeko eskatu diete Iruñea eta Gasteizko gobernuei. Kartak dio pertsona guztiek «hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa» eskuratzeko eskubidea dutela. Hori bermatzeko, ordea, lan baldintza duinak behar dituzte hezkuntza publikoaren ari direnek eta horregatik unibertsitatez kanpoko hezkuntzan greba egunak izan dira, martxoaren 22a, maiatzaren 16a eta abenduaren 12a.

Irakasleek, hezkuntza bereziko hezitzaileek, sukaldeko langileek, garbitzaileek eta Haurreskolak partzuergoan dabiltzanek modu masiboan erantzun diete Tolosaldean greba deialdiei, honako oinarritzko eskaera hauek egiteko: Hezkuntzan egiten den inbertsioa handitzea, guxtienez Europar Batasuneko batz bestekora, %6ra, iritsiz; lantaldeak handitzea, 2.000 langiletan, eta behin-behinekotasuna murriztea %40tik %6ra, horretarako 6.000tik

gora lanpostu egonkortuz; ordezkapenak lehen egunetik egitea, bajak bere osotasunean ordaintzea eta erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak berreskuratzea, horrekin batera, hezkuntzako langileen eroste ahalmena berreskuratuz; eta LOMCE Euskal Herriko ikastetxeetatik ateratzea, «eta honen moldaketa hutsa den» Heziberri bertan behera uztea ere gehitu diete aldarrikapenei.

Irailean egin zuten azken mahai sektoriala gobernuak eta langileen ordezkariek, eta Hezkuntza sailak egingutako proposamen nagusiak ez zituzten sindikatuek eskiztat jo. Mobilizazio egutegia abiatu zuten berriro eta abenduko grebaren ostean, asteotan berriz bildu da mahai sektoriala. Eskaintza hauek egin ditu sailak: ordezkapenak azkartzea, eskola orduak jaistea eta errefortzuak jartzea. Hala ere, sindikatuek ohartarazi dute eskaintza ez dela aski, beste hutsune batzuk ere bideratu behar direla, eta oraingoz, behin-behinekotasunean jarri dute arreta. Negoziazioek jarraituko dute datozen asteetan, baina bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak iragarri duenez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako irakasleen lan eskaintza egingo du 2018an. Jakinarazi du otsailean egingo duela deialdia, eta denera, 1.511 lanpostu eskainiko dituela.

Askotariko esneak, irin desberdinetako tostadak,
mermelada zapore aukera zabala zein etxekoa,
opil goxoak, zukuak, infusio aukera zabala...

ETXEKO BIZKOTXO, TORRIJA ETA LETXE FRITAK
IBARRAKO BARATZEETAKO GARAIKO ALTXORRAK



Asteazken zehar Asteburu eta
6.00-14.30 jaiegunetan
16.30-21.00 6.00-14.00
egunero zabalik

makiu
Oramahai
Euskal Herria 8 IBARRA

BERTAKO PRODUKTUAK SALTZEN DITUGU



**ERRAZKIN
ARTOLA**
harategia

EUSKAL HERRIA KALEA 53, IBARRA

TFNO 943 24 94 29



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas



Ingelesa eta Frantsesa

Klaseak goiz edo arratsaldez
Elkarriketetan ama-hizkuntzadun irakasleak

Informazio gehiagorako jarri gurekin harremanetan

EOI TOLOSA HEO - Paper Kalea, 1- Tfno.: 943 69 75 60
20400 TOLOSA www.eitolosaheo.hezkuntza.net /eitolosa@gmail.com



Tolosako Babarruna

GOZA ITZAZU



www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

SARTU GURE
ONLINE DENDAN ETA...

GOZOGILE BATEN GRINA EZAGUTU EZAZU



rafagorrotxategi.eus

Denda: Solana 1, Tolosa

Lantegia: Pol. Usabal, 14, Tolosa

943 89 03 06



Ibilgailu bat, Aralarko pista batean. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

42

ARALAR NOLA KUDEATU EZTABAIDAGAI

Aralarren ibilgailuentzat pista berriak egiteak ika-mika sortu du. Batetik, abeltzainek mendian dituzten txabolek sarbide «duinak» izatea eskatzen dute. Azpiegitura horiek naturan «inpaktu latzak» sortuko dituztela diote kontra daudenek.

Imanol Garcia Landa

Aralarren kudeaketaren aferak hainbat urte ditu, baina azken hamalau hilabeteetan indarra hartu du, abeltzainen txaboletara iristeko pistak egitearen komenientziaren inguruan. Kronologia moduko bat eginenez, 2016ra egin behar da jauzi. Urte horretako urriaren bukaeran ekin zio-

ten Intzensaotik Goroskintxura 1,5 kilometro luze duen pista berria egiteari. 2003tik onartutako pista bat izan arren, 2016ko urtarrilaren 30ean eman zion Enirio-Aralar Mankomunitateak oniritzia proiektu horri, aho batez.

Pista egiten hasi baino lehen, urriaren 19an mankomunitateak egindako batzarrean aho-batekotasuna hautsi zen. Pista berri gehiago egitea onartu

zen, eta horren alde mankomunitateko bederatzi udalerrik bozkatu zuten: Ordizia, Beasain, Lazkao, Ataun, Altzaga, Arama, Gaintza, Amezketeta eta Abaltzisketa. Beste bost kontra azaldu ziren: Zaldibia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta eta Baliarrain.

Mankomunitatearen onespének guztira 15 kilometro arteko pistak eraikitze bidea ireki zuen. Inguru horretan 125 artzain eta abeltzain aritzen dira lanean maiatza eta azaroa bitartean, eta pistak eraikitze erabakiak haien aspaldiko eskariari erantzuten diola zehaztu zuen mankomunitateak. Aurtengo denboraldian ia 19.000 abelburu larreratu dira Enirio-Aralarren. Ardi kopurua zerbait jaisten ari da urtetik urtera, eta aurtun 17.000 inguru izan dira. Behor eta behi kopuruak igo egin dira zerbait; aurtengorako 900 behi pasa eta ia 800 behor larreratu dira.

Intzensaotik Goroskintxurako mendi bidea egiteko lanak hasi berritan, makinetan sabotaje bat izan zela salatu zuten. Horren aurrean, Enirio-Aralar Mankomunitateak nabarmendu zuen pista hori egiteko erabakia mankomunitateak berak «aho batez» hartu

zuela, eta eraso «gogor» salatu zuen, elkarteko ordezkari guztiek onartuta-ko idazkian.

Ondoren, abenduan, pisten aferak epaitegietara salto egin zuen, Eguzki talde ekologistak eta Landarlan ingurumen elkarrekin jarritako salaketaren izapidetzea onartu baitzuen Gipuzkoako Lurralde Auzitegiko Ingurumen Fiskaltzak.

Iazko abendua mugitua izan zen, besteak beste, gaia Batzar Nagusietara iritsi zelako. EHNE eta ENBA sindikatuek sustatutako «Aralarko artzain eta abeltzainen duintasunaren aldeko ebazpen proposamena» onartu zen. EAJk, PSE-EEk eta PPK alde bozkatu zuten, EH Bilduk abstentziora jo zuen eta Ahal Dugu aurka azaldu zen. Ebazpenean, «Aralar bezalako natur gunekak babestu eta kudeatzen dituzten abeltzain denei, egiten duten onura publikoa» aitortzen zitzaien. Bestalde, Batzar Nagusiek, «artzainen eta abeltzainen lan eta bizi baldintzak hobetu asmoz», Enirio-Aralar Mankomunitateak onartu eta gauzatutako azpiegitura lanei babesa ematen zien, eta etorkizunean ere «bide beretik jarraitzea» eskatu zuten.

Urtea bukatu aurretik egin zuen mankomunitateak batzar garrantzitsu bat. Bertan bi gai nagusi onartu zituzten. Batetik, 2015-2019 legealdiko kudeaketa plana, eta, bestetik, 2017. urtean Eniriotik Igaratza arteko oinezkoen bidea ibilgailuentzat egokitzea. Mankomunitateetik igorritako oharrean bere mendiko «beharrek identifikatu eta lehentasunak jarri» zituztela zehazten zen: «Lehentasun horien artean daude irisgarritasunarekin lotutako azpiegitura sarea egokitzea, larre garbiketa lanak egitea eta txabolak egokitzea».

Mankomunitateko beharren zerrendari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek aurretik onartutako ebazpenari erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Legealdiko Kudeaketa Plan bat landu zuela azaldu zuen mankomunitateak, eta bere egin zuela osoko bilkurak. «Lau urteko plan hau bi milioi euroarekin hornitua izango da eta mankomunitateak identifikatu dituen

inbertsio beharrei aurre egiteko zuzendua dago», zehaztu zuen.

Bi gaien onarpena bozkatzerakoan, mankomunitateko 15 udalerrietatik hamarrek eman zuten baiezkua: Ordizia, Altxaga, Beasain, Gaintza, Lazkao, Ataun, Amezketeta, Orendain, Arama eta Abaltzisketa. Baliarraingo ordezkaria abstenitu egin zen, eta lau udalerriek, bilera lekura joan baziren ere, ez zuten bileran parte hartu: Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta eta Zaldibia.

Aranzadi Batzar Nagusietan

Hurrengo mugarria aurtengo urtarrian izan zen. Aranzadi zientzia elkarteko kideak Batzar Nagusietako Ingurumen batzordean izan ziren, Arala-

Aranzadi elkartearen esanetan, pisten lehenengo inpaktua «paisajistiko» da: «Milioika urteetan mendi malkar horiek ukitu gabeak izan dira. Eta orain, gure makinekin eta gure teknologiarekin puskatzen ditugu formazio karstiko guztiak». Bigarren kalte «handi» bat ibilgailuak parkearen erdian sartzea dela azaldu zuten, «bere gasolioarekin, bere kutsadura guztiarekin. Ez dugu ahaztu behar Aralar kare haitza dela, zulatuta dago, eta lur azpian dagoen errealtatea lur azalean dagoena baino gehiago da. Eta hamarkada batzuk eman ditugu ikeritzen hori guztia. Geologiaren arriskuen mapan aurreikusten da zonalde gorrietan ez direla ibilgailuentzat pis-



Enirio-Aralar Mankomunitateak aurtengo egindako batzar bat. ARIANE VIERBÜCHER/GOIERRIKO HITZA

ren pistak egiteari buruzko iritzia ematera. Bertan izan zen Aranzadiko idazkari nagusia den Juantxo Agirre-Mauleon tolosarra, eta orain hamasei urteko iritzi bera dutela azaldu zuen: «Autoentzako bide sare hori Aralarko bihotzean inpaktu latza da naturarentzat. Ezin dugu utzi gure parke naturala egoera horietan hurrengo belaundientzat. Arduratsu jokatu behar dugu une honetan, berriz ere».

tak egin behar». Hirugarren inpaktua bertako espeziengan eragingo zuela zioten Aranzaditik: «Trafikoarekin hori guztia aztoratu egiten da eta beste ingurumen egoera batera iristen gara. Higadura ere bai, ibilgailuekin eta egiten diren lan guztiekin areagotu egiten da». Agirre-Mauleonek zioenez, «azken batean, azpiegitura honen atzetik dagoen helburua da erabat ekonomikoa, eta eredu bakarra, jasan-



Aurtengo larre irekieran, artalde bat Larraitzetik Aralarko mendietara bidean. REBEKA CALVO

garria ez dena eta oreka mantentzen ez dena».

Artzainen eta abeltzainen lan baldintzak eta parkearen babesa nola uztartu daitekeen galdetuta, Agirre-Mauleonek erantzun zuen «ez dela erraza. Hondeamakinarekin eta hormigoiarekin ez da bidea. Egin behar dena da sakondu daukagun informazioa. Ikerketa gehiago egin: giza kolektibo hori aztertu, zer gertatzen den hango naturarekin... Parke naturala da ez gizakiongatik, natura eta espezieak daudelako. Hori ere aztertu behar da, gaurkotu egin behar da hori, inbentarioak egin behar dira, eta batez ere abiadura ez dugu hartu behar».

Aranzadik Batzar Nagusietan bere aurkezpene egin eta gero, erreakzioak eragin zituen. EHNE eta ENBA nekazaritza sindikatuen ustez, Aranzadiren aurkezpenean «datu okerrak, gezurrak eta oinarri zientifikorik gabeko iritziak, uste subjektiboak eta argumenturik gabeko balorazioak» plazaratu ziren.

Bere aldetik, EAJk esan zuen Aranzadik azaldutakoa «alde batekoa eta iritzietan oinarritutakoa» zela. «Aranzadik emandako iritzi hauek gizarte kohesioa eta ingurunearen kudeaketa integrala eragozten dute». EH Bildutik bat egin zuten «Aranzadik egin duen eskariarekin: aldundiak aurrera eramane nahi duen proiektua alde batera

utzi eta hausnarketa sakona bideratzea, betiere erakunde publiko guztien parte hartzearekin eta gizarte eragileekin elkarlanean». Ahal Duguk berretsi zuen «beharrezkoa» dela «parke naturalaren garapenean eta babesean inplikaturik dauden sektore guztien iritzia jasotzea, garapen jasangarri eta orekatua izateko», eta horretarako batzorde bat osatzea eskatu zuen.

Naturkonek, Gipuzkoako talde ekologista eta naturazaleen kolektiboak, Bioaniztasun Mahaia martxan jartzea eskatu zuen. Landarlan Ingurumen Elkarte eta Aralar Bizirik plataformak «pista proiektu guztiak» gelditzea eskatu zuten, «Aralar Natur Parkeko araudi guztiak betez eta Aranzadiren irizpide zientifikoetan oinarrituz».

Aldundiak kudeaketa plana diruz laguntzea erabakitzea

Urtarrilaren bukaeran aldundiak erabaki zuen bi milioi euro bideratzea Enirio-Aralarko 2015-2019 Kudeaketa Planera. Kopuru horretatik zati bat pista berriak egiteko da. Kudeaketa Planaren barruan aurreikusi du Goroskintxu eta Saltarri arteko pista berria Saltarriraino luzatzea, Enirio eta Doniturrieta arteko oinezkoentzako bidea zabaltzea, Ariñate eta Igaratza arteko V-a osatzea eta Pagabe, Parde-luts, Latosa eta Zotaletara arteko «be-soak ateratzea». Lan horiez gain, ku-

deaketa planean aurreikusi zuten garbiketa lanak egitea, Ariñateko ur biltegia egitea, txabolak eta iturriak konpontzea, aska berriak egitea eta Enirioko langan paso kanadiar bat egitea.

Erabaki horren berri ematean, Imanol Lasa foru aldundiko bozeramaileak esan zuen Aralar natur parke bat zela artzainek eta abeltzainek egindako lanari esker, eta gaineratu zuen bermatu egin behar zaiela etorkizun «duin» bat izateko aukera.

Otsailaren hasieran, mankomunitateko lurretan dagoen Oiduegi mendizale txabola erreta azaldu zen. Mankomunitateak ez ohiko batzar batean adierazpen bat onartu zuten aho batez: sutea nahita eragindakoa izan zela baieztatzekotan, «indar guztiekin» gaitzetsi zuten eraso hori, eta elkartasuna azaldu zioten Zaldibiako Gailurrerantz mendi elkarteari, hark kudeatzen baitzuen txabola. Horrekin batera, mankomunitateak eskatu zuen ez erabiltzeko «maltzurki» sute hori Aralarko pisten inguruko auzian.

Epe horretatik aurrera, Eguzki taldeak eta Landarlanek Intzentsao-Goroskintxu pista proiektuaren inguruan Ingurumen Fiskaltzara aurkeztutako salaketarekin zerikusia duten albisteak iritsi ziren. Hala, irailean Fiskaltzatik azaldu zen «lege hauste zantzuak» egon daitezkeela Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Enirio-Aralar Mankomunitateak onartutako proiektuan eta gaia Tolosako epaitegiaren esku uztea erabaki zuten.

Auzi horren hurrengo pausoa abendu honetan gertatu da, aldundiko bi zuzendari deklaratzera deitu baitzituzten Tolosako epaitegira: Arantxa Ariztimuño eta Felix Asensio. Lehen Mendietako zuzendaria da eta bestea orain Obra Hidraulikoetako zuzendaria bada ere, Ingurumen zuzendari izandakoa. Naturaren kontserbazioan diharduten elkartek batzen dituen Naturkon kolektiboak jakinarazi zue-

nez, «lurralde antolamenduaren aurkako delituak egitea egotzita» deitu zituzten deklaratzera bi zuzendariak.

Iritziak alde eta kontra

Azken hilabeteotan Aralarren pistak egitearen eztabaida zabaldu da. Pistak egitearen alde dagoen ordezkarietako bat Jon Zubizarreta Abaltzisketako alkatea eta Enirio-Aralar Mankomunitateak onartutako proposamena landu zuen lantaldeko kidea da: «Landarlanekoek esaten digute 'artzainak bai, baina pistak ez'. Baina joan zaitez sektoreko edozein eragilerengana, eta denek gauza bera esango dizute; artzain eta abeltzainen baldintzak hobetzen ez badira oso zaila dela Aralarren artzaintzaren jarduerari eustea, eta erreleboa behar bada gutxieneko bide berri batzuk egin behar direla. Eta hori esango dizute gaiari buruz zerbait dakiten eta esateko duten toki guztietan; bai Jaurilaritzako Nekazaritza sailak, bai foru aldundiak, bai sektoreko sindikatuek, landa garapenerako agentziek, Idiazabalgo gaztaren sormarkak... Honi buruz zerbait dakien edonork».

Zubizarretaren aburuz, Aralarri kalte handiagoa egingo lioke artzaintzaren jarduera desagertzeak, pista horiek egiteak baino. «Izan ere, Enirio-Aralarrek duen paisaia, eta jendeak hainbeste defendatzen duen Aralar hori, larre irekiak dituen mendi eremu hori, ez litzateke horrela izango abeltzainen jarduera gabe».

Pistak eraikitzearen kontra hasierahasieratik agertu den eragileetako bat da Landarlan ingurumen elkarteak. Koro Irazustabarrena elkarteko kideak pisten egitasmoak alde onik ez duela dio, eta alde txarrak bakarrik ikusten dizkio. «Pistak egiteko nahi hau ez da berria. 2002an gaia aztertu zen, eta argi gelditu zen kalteak onurak baino handiagoak zirela. Aranzadik ere hala ondorioztatu zuen gaiari buruzko az-



Aralar Bizirik plataformak Eniriotik lgaratzarako bidezidorrean pistarik ez egiteko eskatu du. ATARIA

terketa sakona egin eta gero». Artzain eta abeltzainen kontra egiteko asmorik ez duela argitu du, halaber, Irazustabarrenak. «Eztabaida ez da artzaintza bai ala ez. Argi dago Aralarko larreak giza jarduerak sortutakoak direla, baina ezin da ahaztu natur parkean habitat ezberdinak daudela, denak balio naturalistiko handikoak, eta balio kultural eta arkeologiko handia ere badagoela. Beraz, artzaintza eta abeltzaintza ereduari buruz egin behar da eztabaida, ez pistei buruz».

Tolomendi landa garapenerako agentziak pisten aldeko jarrera agertu du. Iker Karrera teknikariak azaldu duenez, «bideak beharrezkoak dira, beti ere eragin kaltegarri gutxienez egiten saiatuta. Tolomenditik urte demente daramatzagu Enirio-Aralarren abeltzaintza, batez ere artzaintza, bultzatzeko proiektuak laguntzen. Bere garaian txabolak konpontzen, eta azken urteotan mendiko gazta proiektua garatzeko diru laguntzak bideratzen. Baina guzti horiek hankamotz gelditzen direla ikusten dugu. Egun gizartea aldatzen ari da eta behar batzuk dituzte Aralarren jarduera ekonomikoa egiten duten artzainek nagusiki, baina baita ere beste ganaduzaleek ere. Ikusten dugu bideak beharrezko azpiegiturak direla baldin eta Aralar bere osotasunean ulertzen dugun bezala kontserbatu nahi badugu».

Nekazaritza sindikatuek azaldu dutenez, «abeltzainok bi premisa ditugu: abeltzaintza estentsiboa natur eremuaren berme gisa aitortzea eta borda guztietara sarbide duinak izatea». Aralarren egiten duten abeltzaintza estentsiboak «etorkizuna duela sinesten» dutela diote eta «etorkizun duina» aldarrikatzen dute: «Gure jarduerak gizarte osoari ekarpen ugari egiten dizkio, maila paisajistikoa, ingurumenari dagokionean, maila ekonomikoa, baita kulturalen ere».

EAJren ustez, «kudeaketa arloa bere osotasunean hartuko duen ebaluazio eta diagnosi sakona egitea ezin bestekoa da, irizpide ekologiko eta sozioekonomikoei erreparatuz. Urte hauetan zehar naturaguneak urrunetik kudeatu nahi izan dira, lurraldeko eragileak kontutan hartu gabe. Denborak planteamenduaren akatsaz ohartarazi gaitu».

EH Bilduk eskatu du «mahai gainean dagoen proiektua gelditzea eta hausnarketarako eta adostasunak bilatzeko prozesu zabal bat irekitzea». Koalizioaren ustez, «bermatu behar dira artzaintza jasangarria, artzainen bizi baldintza duinak, egun txablekiko sarrera egokiaren eskaerari ere irtenbidea emanez, eta Natura 2000ko eremu babestua den Aralar Parkeko ondare natural zein kulturalaren kontserbazio zuzena».



ZIZURKIL
ALBERDI, ESPAINIAKOAN
HIRUGARREN

Urtarrileko lehen asteburu osoan Jokin Alberdi txirrindulariak Espainiako Ziklo Kros Txapelketan parte hartu zuen, Valentzian. 23 urte azpikoen mailan brontzezko domina lortu zuen zizurkildarrak.



TOLOSA
IMANOL ROJO 10.
MUNDUKO KOPAN

Espainiako Txapelketan bi garaipen lortu ondoren, urtarrila amaieran Munduko Kopan 10. geratu zen Imanol Rojo eskia-tzaile tolosarra, Dolomitenlauf Lienz proban. Alpino Uzturrekoen denboraldi onaren ikur izan da Rojo, beste behin.



ZIZURKIL
DANENAREN
TXIRRINDULARI TALDEA

Danena Kirol Elkartek sekzio berri bat aurkeztu zuen urtarrilean: txirrindulari taldea. Elkartearen hasierako urteetako sekzioa berreskuratu zuen horrela; bai-larako haur eta gaztetxoek beste kirol eskaintza bat luzatuz.



IRURA
MARIA LASA
JUBENILAREN MARKA

Urtarrilaren 28an Gipuzkoako Pista Estaliko Txapelketa irabazi zuen 800 metroan, Maite Zuñigaren errekorra hautsiz. Otsailaren 5ean, Euskadiko Kros Txapelketa irabazi zuen, eta martxoan, Espainiakoan hirugarren geratu zen.



IBARRA
SOKATIRA TALDEAK,
BI TXAPELA

Otsaila eta martxoan bi txapela lortu zituen Ibarako Sokatira Taldeak. Goma gaineko txapelketan, aurrena 640 kilotakoa etorri zen, polemika eta guzti. Hiru talde aritu ziren finalean. Ondoren, 600 kilotakoa iritsi zen, Lesakan.



TOLOSA
KROSEAN TXAPELDUN
ETA TXAPELDUNORDE

Otsailarekin batera Euskadiko Krosa iritsi zen. Unai Arroyok bigarren egin zuen. Ondoren, Berrizen ospatu zen Euskadiko Kros Laburrean, 4.000 metroko ibilbidean, txapela lortu zuen tolosarrak.



VILLABONA
PALA TXAPELKETAREN
LEHEN EDIZIOA

Otsailaren 18an Emakumeen I. Pala Txapelketa Azkarreko finala jokatu zen Villabonako Bearzana frontoian. Ainara Manzisidor lezoarra eta eta Laura Carrerero villabonatarak irabazi zuten.



IKAZTEGIETA
URRETABIZKAIA II.AREN
DEBUTA, BEOTIBARREN

Beñat Urretabizkaia otsailaren 27an debutatu zuen Asegarcerekin, Inaurretako Astelenitan, Tolosako Beotibarren. Victor aurrean zuela, 22-18 irabazi zien Tainta-Beroizi.



IRRISTAKA
HAMAR DOMINA
PATINEN GAINEAN

Euskadiko Zirkuituko Txapelketan Irristakako kideek 10 domina lortu zituzten martxoan, Sansomendin. Domina horietatik bost urrezkoak izan ziren, bi zilarrezkoak eta hiru brontzezkoak.



IBARRA XABI ALONSOREN IRAGARPENA

Martxoan, Xabi Alonsok denboraldi amaieran futbol jokalaririk ibilbideari agur esango ziola iragarri zuen. Realeko, Liverpoolko eta Real Madrideko jokalaririk ohiak, Bayern München igaro zituen bere ibilbideko azken hiru urteak.



TOLOSA HEGATS IGERIKETAN MARKAK HAUTSIZ

Irati Lakunzaren urtea borobila izan da. Martxoan Majorin Ordiziako Urpekoak Sarian Espainiako bi marka hautsi zituen. Hilabete berean, Iruñean Espainiako Autonomia Erki-degoen Arteko Hegats Igeriketa Txapelketa jokatu zen. Tolosarrak hiru urrezko domina lortu zituen bertan. Abuztuan, azkenik, Europako Hegats Igeriketa Txapelketan parte hartu zuen, Poloniako Wrocław hirian. Posturik onena 8. izan baldin bazen ere, bertan, Espainiako hiru marka hobetu zituen.



HALTEROFILIA URTE OSOAN EMAITZAK LORTU ETA LORTU

Villabona eta Zizurkilgo Danok Danena Halterofilia taldeko pultsulariek emaitza bikainak lortu dituzte urte osoan zehar, banaka nahiz taldeka. Euskadiko talde-kako txapeldunek, Espainiakoan zortzi domina lortu zituzten, besteak beste.



ZIZURKIL JON ERASUNEN LEHEN TXAPELA

Apirilaren 1ean Jon Erasun zizurkildarrak Promozio Mailako Binakako Txapelketa irabazi zuen Axier Arteagarekin bikotea osatuz, Tolosako Beotibarren. Finalean 22-12 irabazi zien Jon Ander Peñari eta Ruben Salaverriri.



IKAZTEGIETA LEIRE OLABERRIAREN ITZULERA

Urtebete lehiatu gabe egon ondoren, apirilaren 1ean Leire Olaberria txirrindularitzara bueltatu zen. Itzulera, Donostiako Belodromoan, Scratch probako lasterketa irabazi zuen Gipuzkoa Ogi Berriko txirrindulari ikaztegiarrak.



ARRAUNA EUSKADIKOAN BI BANDERA

Sestaon jokatu zen Euskadiko Batel Txapelketa, apirileko azken aurreko asteburuan. TAK-eko infatil eta jubenil neskak txapeldun geratu ziren, eta kadete neskak bigarren.



TOLOSA ESPAINIAKOAN, BIGARREN

Tolosa CF-ko gimnastika erritmikoko taldeak bigarren egin zuen Espainiako Txapelketan, Guadalajaran. Infantilen taldea Carla, Onintza, Aitane, Ane eta Ismenek osatu zuten.



IBARRA GIPUZKOAKO TXAPELDUN, LAUBURU

Gipuzkoako Ligako play off-ak jokatu ziren maiatzan, Donostiako Mons Kiroldegian. Lauburu K.E.-ek Idiazabalen kontrako partida 1-3 irabazi zuen, Gipuzkoako txapeldun geratuz.



BALIARRAIN ENEKO GARMENDIAREN AGURRA

Intxurre KKE futbol taldean 23 urte pasa ondoren, 36 urterekin zapatilak zintzilikatu zituen maiatzean Eneko Garmendia baliarraindarrak. Bere futbol jokalaria ibilbide guztia Alegiako taldean egin du.



BIDANIA-GOITAZ ION GALARRAGAREN LEHEN DOMINA

Maiatzeko azken asteburuan Espainiako Handbike Txapelketa jokatu zen Malagan. Ion Galarraga goiaztarra bertan izan zen, eta bere ibilbideko lehen domina lortu zuen Espainiako txapelketa batean.



TOLOSA DE JUAN ANAI-ARREBEN URREZKO DOMINA

Ekainarekin batera, Espainiako Federazioen Arteko Topaketeta jokatu zen. Tolosa CF Atletismo Taldeko De Juan anai-arrebek Euskadiko selekzioa ordezkatzuz urrezko domina bana lortu zuten.



IBARRA OTAMENDIRENTZAT EUSKAL HERRIKO LIGA

Segan, Nazioarteko eran, Euskal Herriko Liga jokatu zen. Hirugarren eta azken jardunaldiara Alaitz Imaz eta Ainara Otamendi berdindurik iritsi ziren. Ekainean, txapela Ibarra joan zen, azken proba hori irabazita.



TOLOSA NNEGUE ESPAINIAKO TXAPELKETAN GARAILE

Maria Felisa Nnegue Espainiako Txapelketa irabazi zuen pisu jaurtiketan, kade-teetan. Ekainean jokatu zen txapelketa Murtziako Lorca hirian, eta tolosarrak, pista estalian, 13.74 metroko jaurtiketa egin zuen.



AMASA-VILLABONA ANE IRIARTEREN URREZKO DOMINA

Ekaineko azken astean Espainiako Erlojuaren Aurkako Proban Ane Iriarte txirrindulari billabonatarrek urrezko domina lortu zuen 23 urte azpikoen erlojupeko proban. Sorian jokatu zen txapelketa.



SEGA 'URKI'-REN ITZULERAKO TXAPELA

Uztailaren 9an Gipuzkoako Seg Txapelketa jokatu zen Asteasun. Jexuxmari Ormaetxea Urki-k irabazi zuen. Alegian bizi den orendaindarraren itzulera-ko proba izan zen Gipuzkoakoa.



AMASA-VILLABONA SUSANA DAVILA 9. MUNDU MAILAN

Ekainaren 16an Tokion (Japonia) Munduko Halterofilia Txapelketa jokatu zen. Danok Danena taldeko Susana Davila Sansiñena billabonatarrek bederatzigarren postua lortu zuen. Lorpen izugarria, eta horregatik, Danok Danena Halterofilia Taldetik Davila zoriondu zuten, egindakoa azpimarratuz.



TOLOSA CAMINOS HIRUGARREN MUNDUKO TXAPELKETAN

Uztailarekin batera lehenengo lorpenak eskuratu zituen mundu mailan Irene Camino-sek. Munduko Trial Kopan, bigarren, laugarren eta bosgarren postuak lortu zituen tolosarrak. Munduko Txapelketa Txinan jokatu zen azaroan, eta bertan ezustekoa eman zuen, podiumera igoz. Atzetik aurrerako proba egin ondoren hirugarren amaitu zuen trialeko txirrindulari tolosarrak, mundu mailako kirolaria dela erakutsiz.



AMASA-VILLABONA ENEKO MAIZ, MUNDUKO TXAPELDUNORDE

Euskal Herriko eta Espainiako txapeldun geratu ondoren, Eneko Maiz pilotariak Munduko Trinkete Txapelketako finala jokatu zuen azaroan eta Argentinan. Mexikarraren aurka galdu zuen finala billabonatarrek.



AMASA-VILLABONA IRAITZ ARROSPIDEREN LASTERKETAK

Irailean Berlingo Maratoi 29. postuan amaitu zuen billabonarrak. Azaroan, Donostia-Behobia hirugarren bukatu zuen, eta hilabete berean, Donostiako Maratoi Erdian, helmugara lehen postuan iritsi zen.



IBARRA UNAI IRIBARREK BRONTZEZKO DOMINA EUROPAN

Txirrindulari ibartarra etxean eta Espainian garaipenetik garaipenera ibil ondoren, uztailan Portugalera joan zen Europako Pistako Txapelketa jokatzera. Hasi orduko lortu zuen domina, brontzea, kanporaketan. Hilabete beranduago Italian Munduko Junior Txapelketan parte hartu zuen ibartarrak. Scratch proban zazpigarren postua lortu zuen.



AMEZKETA JOKIN ALTUNAREN PROFESIONALETAKO LEHENA

Azaroaren 19an, Bilboko Bizkaia pilotalekuan, Altuna III.ak eta Urrutikoetxeak Lau t'erdiko Lehen Mailako Txapelketaren finala jokatu zuten. Amezketarrek 21-22 irabazi zion bizkaitarrari, bere profesionaletako lehen txapela lortuz. Amezketatik lau autobus joan ziren Bizkaiko hiriburura, eta partidaren latz sufritu eta gozatu ondoren, harrera-afaria egin zioten Jokin Altunari Amezketan.



ANOETA MAIDER MENDIZABAL, TXAPELDUNORDE

Martxoan Nagore Arozenarekin batera binakako finala galdu ondoren, abenduaren 6an lau t'erdiko Emakume Master Cup txapelketaren finala ere galdu egin zuen Maider Mendizabek.

San Bartolome, 2.
Ibarrako plaza
Tel.: 943 67 11 38
Faxa: 943 68 38 52



Falta
direnak
gogoan,
Urte berri
on!!!!





bertako
igogailuak | ascensores

24 orduko
benetako zerbitzua



Pieza guztiak barne
100 eurotik zurrera

Euskarazko
zerbitzu profesionala



EMERGENTZI-TELEFONOA DOAN
LED AGIEN ITZALTZE AUTOMATIKOA KABINETAN
IRAUPEN-KONPROMISORIK GABE

ESKATU AURREKONTUA

www.bertako.eus
info@bertako.eus
691 64 79 65

1990

diecinueve
noventa
gastroteka

Berria, originala,
ezberdina...



Gure karta
ikusi
al duzu?

Baietz pikatu...



1990 | diecinueve
noventa
gastroteka

Garagarza Plaza, 5 | **ORDIZIA** | Tel.: 943 88 40 79

Euskal Herria plaza, 5 | **TOLOSA** | Tel.: 943 119 017

Euskal Herria Plaza, 21 | **ARRASATE** | Tel.: 943 82 90 23